GERNIKAZARRA
historia taldea

GERNIKA LUMOKO
Historia Bilduma
V

ERRENTERIA • Alberto Iturriarte Martínez

Alberto Iturriarte Martínez

GERNIKAZARRA
historia taldea

KULTUR ETXEA
GERNIKA - LUMOKO HERRI ERAKUNDEA
94 627 02 01 • kultur-etxea@gernika-lumo.net

GERNIKA-LUMOKO UDALA

ERRENTERIA

Gernika-Lumoko **Historia Bilduma** V

ERRENTERIA

Edición / Argitalpena
Gernika-Lumoko Udala eta Gernika-Lumoko Kultur Etxea

Textos / Testuak
Alberto Iturriarte Martínez

Traducción Euskera / Euskera itzulpena
HORI-HORI

Diseño y Maquetación / Diseinua eta maketazioa
Gráficas Amorebieta

Impresión / Inprimaketa
Gráficas Amorebieta

Depósito Legal / Legezko gordailua
BI-2788-05

I.S.B.N:
84-934568-1-0

© Alberto Iturriarte Martínez
Gernikazarra Historia Taldea

Arantxa, Ane eta Sarari.



EGILEA

EL AUTOR

Alberto Iturriarte Martínez Gernika-Lumon jaio zan 1959an. Magisteritza ikasketak egin ebazan Euskal Herriko Unibertsitatean eta, hareen osagarri, Pedagogia Terapeutikoa, Aholkularitza-Orientazinoa, eta Hezkuntza Bereziko Masterra egin zituan Deustuko Unibertsitatean.

1982tik eskola irakasle da Errenteriako Santa María del Socorro-La Merced ikastetxean, eta auzo horretan bertan bizi da 1992tik.

Gernikazarra Historia Taldearen sortzaileetako bat da eta, beste askoren artean, **Gernika-Lumogaz zerikusia dauken liburu honeen egilekidea:**

Alberto Iturriarte Martínez nace en Gernika-Lumo en el año 1959. Realiza los estudios de Magisterio en la Universidad del País Vasco, y los completa con los de Pedagogía Terapéutica, Consultor-Orientador y Master de Educación Especial en la Universidad de Deusto.

Desde el año 1982 imparte sus clases en "Santa María del Socorro-La Merced Ikastetxea" en Rentería, barrio en el que reside desde el año 1992.

Es miembro fundador de 'Gernikazarra Historia Taldea', y es coautor, entre otros, de los siguientes **libros relacionados con Gernika-Lumo:**

"Gernika Zaharra: Callejero, apuntes y anécdotas del Gernika anterior al Bombardeo." (1987)
"Gernika: Fotografias de la reconstrucción." (1991)
"El Bombardeo de Gernika" (1991)
"El Asilo Calzada.1892- 1902." (1993)
"Gernika y la Guerra Civil" (1998)
"Historia de Lumo" (1999)
"El archivo del convento de La Merced de Rentería" (2000)
"Centenario del colegio San Fidel."(2001)
"Gernika – Lumo, kalerik kale." (2002)
"Arkupe Pilota Taldea" (2004)

Taldeko beste kideakaz batera, **Gernika-Lumori buruzko erakusketa honeek** be eratu ditu:

Ha organizado, junto a los demás miembros del grupo, las siguientes **exposiciones sobre Gernika-Lumo:**

"Exposición fotográfica sobre la antigua Gernika – Lumo." (1986).
"Exposición gráfica del Bombardeo." (1987)
"Las guerras carlistas en nuestro entorno" (1989)
"Gernika – Lumo 1880 – 1890. Euskal Jaiak" (1989)
"El Bombardeo de Gernika" (desde el año 1991 hasta el año 1997)
"Recorrido histórico por la industria de Gernika – Lumo." (1994)
"Gernika – Lumo" (1996) Enviada al Basque Center de Boise (Idaho).

Gernika-Lumoko historiaren ikerlari eta dibulgatzaile lez, herriko Aldaba aldizkarian **lan honeek argitarau ditu:**

Como investigador y divulgador de la historia de Gernika-Lumo, **ha publicado los siguientes trabajos en la revista local 'Aldaba':**

"Las antiguas tabernas de Gernika – Lumo." (1986)
"Apuntes de la construcción del mercado." (1987)
"La San Rocada en Gernika – Lumo" (1988)
"La prevención de fuegos en Gernika en la Edad Media" (1990)
"Gernika- Lumo, 1931: De la Monarquía a la República" (1991)
"El Asilo Calzada" (1992)
"La San Rocada: la semilla del nacionalismo vasco." (1994)
"Markina – Arratzu: Un tramo del Camino de Santiago" (1994)
"1493: Los Reyes Católicos confirmaron la Carta Puebla de Gernika" (1994)
"El rapto de Gernika"(1996)
"28 de abril: ¿Qué tiene de especial ese día?" (1996)
"El convento de La Merced durante el Bombardeo" (1998)
"Gernika se separa de Lumo" (1998)
"Controversias en torno a los entierros. El acuerdo de 1652" (1998)
"Un barco medieval en los Cinco Frontones" (1998)
"Santa Ana vuelve a casa. Rentería recupera la talla de su virgen". (1999)
"Trascripción de los manuscritos del archivo de La Merced" (2000)
"1835: La cruel y sangrienta batalla de Gernika" (2000)
"Orígenes del convento de La Merced: De Ibarruri a Rentería" (2001)
"Las dos ermitas de Rentería: San Bartolomé y Santa María Magdalena" (2001)
"Reformas en la iglesia de La Merced" (2001)
"Importantes reformas en la iglesia de Santa María" (2001)
"El convento de La Merced desde su asentamiento en Rentería hasta las convulsiones del siglo XIX" (2002)
"Las tres casas rentérias de Lumo y de Gernika" (2002)
"La primera casa rentería en Ajangiz" (2003)
"La Carta Puebla de Gernika" (2003)
"Hace 40 años se inauguró el colegio de La Merced". (2004)
"Esplendor y decadencia de Gernika. (1366-1576)". (2004)
"Derruidos dos edificios emblemáticos de Rentería" (2004)
"Entrada de las tropas francesas en Gernika" (2005)
"Pedro Mochove ahorcado y descuartizado" (2005)

Gernika-Lumoko historiaren dibulgatzaile modura, **telebistako dozena bat programatan parte hartu dau**, batez be Urdaibai Telebistan, gai honeei buruz berba eginaz:

Como divulgador de la historia de Gernika-Lumo, **ha participado en una docena de programas de televisión**, fundamentalmente en Urdaibai Telebista, con programas dedicados a:

Gernikaren fundazinoa.
Ajangiz, Lumo eta Gernikako itsas portuak.
Bandoen arteko gerrak Urdaibain.
Ajangiz, Lumo eta Gernikako errenteria etxeak.
Errenteriako kaleei buruzko bitxikeriak.
Eta abar...

HITZAURREA

PRÓLOGO

"Errenteria" berbeak aditzera emoten deusku zein etxetan gordetzen izan zan burdina eta non burutzen izan ziran lan-gai horren inguruko zerga kontuak. Berba horren islada geratu jaku euskal heraldikan eta hainbat leku-izen zein bizi-gune askoren izenak ipinteko jatorri dogu. Hor daude adibide Gipuzkoako Errenteria edo Gernika-Lumoko Errenteria auzoa.

Aipatutako azken inguru hau Ajangiz izan da historikoki eta egun Gernika-Lumo dogu. Dana dala, beti izan dau leku horrek nortasun berezia, ingurukoetatik desberdindua. Bertako biztanleek dinoenez, Errenteria errepublika independientea da eta arrazoi faltarik ez daukie, liburu honek aditzera emongo deuskunaren arabera behintzat. Batez be nekazaria zan Ajangizko udalerrian Errenteriako auzokideak "kaletarrak" ziran. Leku horretan ba egozan harategia, abere-hiltegia, ganadu azoka, errotea, gatz-saltokia eta merkatal giro indartsua eta salgai ugaritakoa. Bidegurutzea, portua eta errekea igaroteko zubia be bertan izanda, Bizkaiko Jaurerriko Ogasunaren zutabeetako bat zan inguru hori, burdinaren gaineko zergak, zubia igarotzeagatikoa edota arrantza-porturako bideak erabiltzekoak kobratzeko errenteria etxeko katea (katekoa) bertan kokatuta egoan eta.

Auzo honetako biztanleriak XVIII. Mendearen atarian gora egin baeban be, XIX. mendean eta, batez be, XX. mendearen hasieran izan zan auzo honetako uri "status"-a finkatu zana, ajangizko nekazal munduagazko guztiz desberdinduta. Halandabe, 1943. urtean agintari frankistek Gernika-Lumogaz derrigorrez lotutea erabaki eben. Egoera hori mantendu zan demokraziara bueltatu arte eta, orduan, bi herri-kontsulta bitarteko, "foru uriari" lotuta jarraitutea aukeratu eben auzokideek.

Alberto Iturriarte Martinez, lumotarra jaiotzaz eta Errenteriako auzokidea, Gernikazarra taldeko fundatzaileetako bat dogu eta 20 urtetik gora daroaz ikerlanetan. Batez be erdi-aroko eta aro modernoko Lumo eta Gernika landu dauz (modu berezian uriaren sorkuntza sasoia eta 1882an batu ziran arteko herrieta eta auzien ingurukoak).

Iturriartek orain aurkeztuten deuskuna Errenteriako historia da. Maite daben lekuan bizi eta lan egiten daben ikerleengan ohizkoa izaten dan legez, buru-belarri eta bihotzez aztertu dau inguru hori bost urtez. Idazlan txalogarria gure ustez, darion seriotasuna eta sakontasunagaitik, eta gu geu ere harro sentitzeko modukoa, halako ikerlan bat Gernikazarra taldeko kide batek argitara emoteagaitik.

Jose Angel Etxaniz Ortuñez.
Gernikazarra

El término 'rentería' designa la casa-lonja dónde se almacenaba el hierro y dónde se realizaban todas las operaciones fiscales relacionadas con este material. Su presencia ha quedado reflejada en la heráldica vasca, y ha dado lugar a abundantes topónimos y a núcleos de población como el de Rentería en Gipúzkoa, o el barrio de Rentería de Gernika-Lumo.

Este último enclave, ha pertenecido históricamente a Ajangiz y en la actualidad a Gernika-Lumo. Sin embargo, ha poseído desde siempre unas características propias claramente diferenciadas de su entorno. Como afirman sus vecinos, Rentería es una republica independiente, y no les faltan argumentos a tenor de lo que nos descubre el presente libro: Sus vecinos fueron los "kaletarras" de una Ajangiz eminentemente rural. Poseyeron carnicería, matadero público, ferial de ganado, molino, estanco de sal y un floreciente y variado comercio local. Como cruce de caminos, puerto fluvial y puente para pasar la ría, este lugar fue uno de esos pilares de la Hacienda del Señorío de Bizkaia, ya que allí estuvo ubicada la cadena (katekoa) de la casa rentería donde se cobraban impuestos por el hierro, por cruzar el puente, o por utilizar los caminos de acceso al puerto.

Si bien este barrio despegó demográficamente en las postrimerías del siglo XVIII, será a finales del XIX y, sobre todo, a comienzos del siglo XX, cuando el barrio consolide su 'status' urbano, claramente diferenciado del área rural ajangiztarra. Sin embargo, en 1943 las autoridades franquistas ordenaron su anexión forzosa a Gernika – Lumo, situación que se mantuvo hasta la vuelta de la democracia, cuando sus vecinos eligieron mediante dos consultas populares, seguir unidos a la 'villa foral'.

Alberto Iturriarte Martínez, lumotarra de nacimiento y vecino de Rentería, es miembro fundador de Gernikazarra, y lleva más de 20 años de investigaciones a sus espaldas. Se ha especializado en temas medievales y modernos de Lumo y de Gernika (sobre todo en lo referente a la fundación de la villa, y a las luchas y pleitos que mantuvieron entre ellas hasta su fusión en 1882).

Iturriarte nos presenta ahora la historia de Rentería. Como es propio de investigadores que aman el lugar donde viven y trabajan, ha estudiado a fondo y con cariño este enclave durante más de cinco años. La obra en cuestión merece nuestro aplauso por su seriedad y profundidad, y nos hace enorgullecernos de que un miembro de Gernikazarra publique una investigación de este calado.

José Ángel Etxaniz Ortuñez.
Gernikazarra

ESKERRAK EMOTEKO

AGRADECIMIENTOS

Eskerrak emon gura deutsedaz Anton Mintegia, Fernando Malaxetxebarria, Lopez de Larruzea Zarate familia eta "Txebi" Arriagari, argazki ugari beste barik itxi deustiezalako.

Era berean, eskerrak, Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzuko Bittor Zarrabeitia teknikoari, nire lanarekiko izan dauan errespetuagaitik eta liburua argitaratzeko izan dodazan hainbat arazori konponbidea aurkituteko arduratsu eta eraginkor agertu jatalako.

Ez dodaz gura aipatu barik itxi Yolanda Hernandez Abiatua eta Ana Mari Garcia-Miguel mertzedaria, eurek egin deustiez-eta Errenteriari eta bertako biztanleei buruzko hainbat ohar baliagarri. Gogoan baita, Marilu Mandaluniz Olabarriaga eta Javier Moreno Azurmendi, ikus-entzunezko eta informatika arloak lantzeko eskeini deustien laguntza estimagarriagaitik.

Aipamen berezia egin behar dot Aldaba aldizkaria eta bere lan-taldearena. Nik egindako azterlan asko argitaratzeaz gain, beti hartu izan dot eurengandik eskuzabaltasuna, poztasuna eta lanerako grina.

Azkenik, bihotzetik neure esker ona Gernikazarrako lagunei (Javier Urrutia, Ricardo Arrien, Vicente del Palacio, José Ángel Etxaniz, Alberto Zarrabeitia eta Juan Antonio Carballo). Eurekaz jardun izan dot 20 urtez gogotsu, eztabaida eta historiaren inguruko buru-hauste askoren inguruan. Astero eurengandik ikasten dodan guztiagaitik eskertzeaz gain, eskerrak emoten deutsiedaz adiskide ditudalako.

Alberto Iturriarte Martínez
Gernikazarra

Quiero agradecer a Antón Mintegia, a Fernando Malaxetxebarria, a la familia López de Larruzea Zarate y a 'Txebi' Arriaga su gran generosidad, al haberme cedido de forma completamente desinteresada muchas fotografías.

Agradezco también a Bittor Zarrabeitia, del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Gernika - Lumo, su respeto hacia mi obra, y su diligencia y eficacia a la hora de solucionar las múltiples dificultades que me he encontrado a la hora de publicar este libro.

No me quiero olvidar de las muy acertadas indicaciones sobre Errentería y sus paisanos de Yolanda Hernández Abaitua y de la mercedaria Ana Mari García – Miguel, ni de la gran ayuda que me han prestado en los campos audiovisual e informático Marilu Mandaluniz Olabarriaga y Javier Moreno Azurmendi, respectivamente.

Mención aparte se merece mi muy querida revista Aldaba y sus gentes, quienes me han publicado varios estudios y en quienes siempre he encontrado un punto de apoyo, de alegría y de entusiasmo.

Y por último, quiero dedicar mi más profundo reconocimiento a mis compañeros de Gernikazarra (Javier Urrutia, Ricardo Arrien, Vicente del Palacio, José Ángel Etxaniz, Alberto Zarrabeitia y Juan Antonio Carballo), con quienes disfruto desde hace 20 años de múltiples debates e inteligentes discusiones históricas. Les agradezco todo lo que me enseñan semana tras semana, pero, sobre todo, les doy las gracias por honrarme con su amistad.

Alberto Iturriarte Martínez
Gernikazarra

AURKIBIDEA

INDICE

1. ATALA.- XIV. MENDEA	13	*CAPITULO 1.- EL SIGLO XIV*
1.- Ajangizeri buruzko lehenengo barriak	14	*1.- Las primeras noticias de Ajangiz.*
2.- Ajangizeko etxalde batzuk Gernikan auzotuta	15	*2.- Caserías de Ajangiz se avecinan en Gernika.*
2. ATALA- XV. MENDEA	17	*CAPITULO 2.- EL SIGLO XV*
1.- XV. mende iluna	18	*1.- El oscuro siglo XV.*
2.- Ajangizen eraketa politikoa	19	*2.- La formación política de Ajangiz.*
3. ATALA- XVI. MENDEA	21	*CAPITULO 3.- EL SIGLO XVI*
1.- Errenteria etxea	22	*1.- Se levanta la casa rentería.*
2.- Hazkunde ekonomikoa	30	*2.- El gran despegue económico.*
3.- Errenteriako portua	33	*3.- El puerto de Rentería.*
4.- Errenteriako azokea eta merkadua.	36	*4.- La feria y el mercado de Rentería.*
5.- Errenteriako ermita bien jatorriak.	37	*5.-Orígenes de las dos ermitas de Rentería.*
6.- "Urrengo" errotearen jatorria.	38	*6.- Orígenes del molino Urrengo.*
4. ATALA.- XVII. MENDEA	41	*CAPITULO 4.- EL SIGLO XVII*
1.- Mesedetako mojak Errenteriara datoz	42	*1.- Las monjas de La Merced llegan a Rentería.*
2.- Errenteria-Etxea	53	*2.- La casa rentería.*
5. ATALA.- XVIII. MENDEA	57	*CAPITULO 5.- EL SIGLO XVIII*
1.- XVIII. mendeko su-erroldak	58	*1.- Fogueraciones del siglo XVIII.*
2.- Malosteko ortuari eta abere azokea	61	*2.- La feria agrícola y ganadera de Maloste.*
3.- San Bartolome ermitea	63	*3.- La ermita de San Bartolomé.*
4.- Madalena ermitea	65	*4.- La ermita de La Magdalena.*
5.- Madalena auzoa	68	*5.- El barrio de La Magdalena.*
6.- Mesedetako komentua	70	*6.- El convento de La Merced.*
7.- Arazoak Errenterian berezko parrokiarik ez eukelako	74	*7.- Problemas en Rentería por la falta de una parroquia propia.*
6. ATALA.- XIX. MENDEA	77	*CAPITULO 6.- EL SIGLO XIX*
1.- Mesedetako komentua	78	*1.- El convento de La Merced.*
2.- Madalena ermitea	89	*2.- La ermita de La Magdalena.*
3.- Madalena auzoa eta Maloste	92	*3.- El barrio de La Magdalena y Maloste.*
4.- Errenteria etxearen gunea	95	*4.- La zona de la casa Rentería.*
5.- Errenteriako portua: Portuzarra.	98	*5.- El puerto de Rentería: Portuzarra.*
6.- Taberna publiko biak	101	*6.- Las dos tabernas públicas.*
7.- Harategia eta hiltegi publikoa	103	*7.- La carnicería y el matadero público.*
8.- Bideak eta errepideak	105	*8.- Caminos y carreteras.*
9.- Errenteriako mugarriak ipintea	108	*9.- El amojonamiento de Rentería.*
10.- Erroldak eta zentsuak	109	*10.- Padrones y censos.*

7. ATALA.- XX. MENDEA (I)	111	*CAPITULO 7.- EL SIGLO XX (I).*
1.- Itsasadarraren kanalizazinoa	112	*1.- La canalización de la ría.*
2.- 1910eko errolda batzuk	114	*2.- Diversos padrones del año 1910.*
3.- Edateko ura zala-eta liskarra	116	*3.- Trifulca con Gernika-Lumo por el agua potable.*
4.- San Bartolomeren irudi barria	117	*4.- La nueva imagen de San Bartolomé.*
5.- 'Maloste' futbol taldea	120	*5.- El club de fútbol 'Maloste'.*
6.- Tabernazarra eta Portuzarra	122	*6.- Tabernazarra y Portuzarra.*
7.- Errenteriako jaien barri	122	*7.- Noticias de las fiestas de Rentería.*
8.- Errenteriako kaleen gerra orduko zerrendea	125	*8.- Callejero de Rentería antes de la guerra.*
8. ATALA.- XX. MENDEA (II)	127	*CAPITULO 8.- EL SIGLO XX (II).*
1.- Gerrearen hasierea	128	*1.- El inicio de la guerra.*
2.- 'Loyola' batailoia Errenterian	130	*2.- El Batallón 'Loyola' en Rentería.*
3.- Bonbardaketea	131	*3.- El bombardeo.*
4.- Errenteria tropa frankistek okupauta	132	*4.- La ocupación de Rentería por las tropas franquistas.*
5.- Mesedetako komentua gerra denporan	133	*5.- El convento de La Merced en la guerra.*
9. ATALA.- XX. MENDEA (III)	137	*CAPITULO 9.- EL SIGLO XX (III).*
1.- Gernika–Lumori anexionetea	138	*1.- La anexión a Gernika – Lumo.*
2.- 1945eko udal erroldea	143	*2.- Padrón municipal de 1945.*
3.- 'Idurgo' lantegia	147	*3.- La fábrica de Idurgo.*
4.- Errenteria Ajangizetik banatu eta Gernika–Lumogaz bat eginda	149	*4.- Rentería se separa de Ajangiz y se integra en Gernika – Lumo.*
5.- Mesedetako ikastetxe barria	150	*5.- El nuevo colegio de La Merced.*
6.- Mesedetako eleizearen barrizte-lanak	154	*6.- Restauración de la iglesia de La Merced.*

XIV. Mendea

El Siglo XIV

1

1. Ajangizeri buruzko lehenengo barriak.
   Las primeras noticias de Ajangiz.
2. Ajangizeko etxalde batzuk
   Gernikan auzotuta.
   Caserías de Ajangiz se avecinan
   en Gernika.

1

XIV. Mendea

El Siglo XIV

1.- AJANGIZERI BURUZKO LEHENENGO BARRIAK

Ajangizeri buruzko lehenengo barriak, dokumentu baten idatzita, Gernika uribilduaren sorrerako uri-gutunean agertu ziran, 1366an On Tello kondeak sinatutakoan. Agiri horretan, uribildu barriarentzat ordura arte Ajangizekoak izandako orube bi izendatzen dira: Ibinarriaga eta Gorguena.

Lehenengoa, Ibinarriaga, gaur egungo Kasamene izeneko baserria dagoan lekuan egoan, Maloste parkearen inguruetan. Ibinarriagak "harrizko ibia dagoan lekua" esan gura dau. Oka errekea eta Gernikako itsasadarra batetik bestera zeharkatzeko bai pertsonek bai abereek erabilten eben lekua zan, ze bertan errekearen hondoa sendoa zan, laua eta sakonera txikikoa, eta seguruena harlausaren batzuk ipiniko ebezan ertz batetik bestera errazago pasetako. Horrexegaitik sartuko eban On Tellok Gernikaren uri-gutunean; uribilduak berak kontrolau egian errekondo batetik bestera nor eta noiz pasetan zan. Kontrol horreri esker, gernikarrek eurentzat ziurtau eben errekea handik zeharkatu nahi ebanari peajea kobretearen kontua (zubisaria). Pasabide hori gaur egun Idurgo mahai-tresnen lantegia dagoan lekuan, egoan. Urteek aurrera egin ahala, Ibinarriaga torretxe bihurtu zan, eta etxaldearen inguruetan beste etxe bi altzau ebezan: Ibinarriaga goikoa (gaur egun ez da existitzen), eta Ibinarriaga ormaetxe (gaur egungo Ormaetxe).

Caserio Kasamene

Gernikaren sorrera-gutunean Gorguena be aitatzen da (Goguena eta Gorgana izenakaz be agertzen da, uri-gutunean egindako itzulpenen arabera), Ajangizeko plazearen inguruetako baserria. On Tellok dohaintzan emongo eutsan Gernikari, Ibaibarriaga lez, hau da, irabazi ekonomikoren bat izatearen trukean: Gorguena bidegurutze baten egoan, Santiago bidearen adarretako baten, Markina aldetik Gernikara etorren bidean hain zuzen be. Ganera, handik beste galtzada batek urteten eban, gaur egungo Kanpantxurantz, eta errekea handi etorren sasoietan hobeto zan bertatik joatea, Ibinarriagatik ezin izaten zan beste errekondora pasau eta. On Tellok, horretara, galtzada bi horreen kontrola uribilduarentzat ziurtauta itxi eban.

1.- LAS PRIMERAS NOTICIAS DE AJANGIZ

Las primeras noticias documentales sobre Ajangiz las encontramos en la carta fundacional de la villa de Gernika, firmada en el año 1366 por el conde Don Tello. En dicho documento se nombran dos solares adjudicados a la nueva villa, que se encontraban en Ajangiz: Ibinarriaga y Gorguena.

El primero de ellos, Ibinarriaga, se corresponde con el actual caserío Kasamene, situado en las inmediaciones del parque de Maloste. Ibinarriaga se traduce como "el lugar del vado de piedra". Se refiere, sin duda, al lugar por el que las personas y animales cruzaban el río Oka y la ría de Gernika desde una orilla a la otra, ya que, además de tener un fondo firme, llano y poco profundo, habrían colocado losas de piedra en el fondo del río para facilitar el paso. Por esa razón, Don Tello lo habría incluido en la carta puebla de Gernika para que la villa dominara el control de paso de las dos márgenes de la ría. Gracias a este control, los guerniqueses se aseguraban para sí el cobro del peaje preceptivo para poder cruzar por tal lugar (el pontazgo) . Este paso estuvo situado en las inmediaciones de lo que hoy es la fábrica de cubiertos Idurgo. Con el tiempo, Ibinarriaga se transformó en una casa torre, y en sus inmediaciones se levantaron dos nuevas edificaciones: Ibinarriaga de suso o goikoa (hoy derruida), e Ibinarriaga ormaechea (Hoy conocida por Ormaechea).

Se habla también en la carta fundacional de Gernika, de Gorguena (también Goguena ó Gorgana, según se miren las distintas traducciones que existen de la carta puebla), caserío que se encuentra en las inmediaciones de la plaza de Ajangiz. Don Tello lo habría donado a la villa con el mismo interés económico que le llevó a donar Ibinarriaga: Gorguena era un cruce de caminos por donde pasaba un ramal del camino de Santiago que llegaba desde la zona de Markina hacia Gernika. Además, desde allí salía otra calzada hacía la actual Kanpantxu que era muy interesante para utilizarla en las épocas en las que la ría sufría crecidas, y no podía ser cruzada por Ibinarriaga. Don Tello aseguraba así para la villa el control de estas calzadas.

2.- AJANGIZEKO ETXALDE BATZUK GERNIKAN AUZOTUTA

1376an, Ajangizeko etxalde batzuk Gernika uribilduan auzotu ziran, Bizkaiko Jaun eta Gaztelako errege zan Juan I.ak nekazariak eta olagizonak babesteko idatzitako gutuna aprobetxauaz:

"(...) mando que todos los labradores (...) que están fuera de los términos que yo doy a estas dichas villas entren de vecinos en estas dichas villas (...) 1"

Agiri horretan jasotakoan oinarri hartuta, Gernikan auzotu ziran gaur egungo Ajangizen lurraldeetan egozan baserri honeek: Astobieta, Enbeita, Urretxaga, Uriarte aurrekoa, Uriarte behekoa, Arespe, Arguenabeitia, Arguenagoitia, Izpizua auzokoa, Izpizua gorena, Sagarzola, Ajangiz, Uruburu eta Aresti. Euretatik bat bera be ez egoan gaur egun Errenteria dan auzoan. Toki horreei "uriauzo" esaten jaken, eta nahiz eta Ajangizen egon, Bizkaiko Forutik eratorritako legeak ezartzen ziran eremuan, Gernika uribilduko legepearen arabera araututa egozan, eta lege horreek desbardinak ziran, Logroñoko Foruan euken jatorria eta.

2.- CASERIAS DE AJANGIZ SE AVECINAN EN GERNIKA

En el año 1376, varias caserías de Ajangiz se avecindaron a la villa de Gernika, aprovechando la carta de amparo a los labradores y ferrones que redactó el señor de Bizkaia y rey de Castilla Juan I:

En virtud del tal documento se avecindaron a Gernika los caseríos sitos en lo que hoy es Ajangiz: Astobieta, Enbeita, Urrechaga, Uriarte aurrecoa, Uriarte de yuso, Arespe, Arguena beitia, Arguena goitia, Izpizua auzocoa, Izpizua gorena, Sagarzola, Ajanguiz, Uruburu y Aresti. Ninguno de ellos se encontraba en lo que en la actualidad constituye el barrio de la Rentería. Estos lugares, conocidos como "uriauzoak" (enclaves de la villa), a pesar de encontrarse situados en Ajangiz, donde se aplicaban las leyes emanadas del Fuero de Bizkaia, se regían por las leyes de la villa de Gernika, diferentes a las anteriores por proceder del Fuero de Logroño.

[1] ITURRIZA, J.R.- "Historia general de Vizcaya y epítome de las Encartaciones". 8. eskriturea. 1.072-1.074 zk.. Bilbao, 1967. urtea

ITURRIZA, J.R.- "Historia general de Vizcaya y epítome de las Encartaciones". Escritura nº 8. Nos. 1.072-1.074. Bilbao, año 1967.

XV. Mendea

El Siglo XV

2

1. XV. mende iluna.
   El oscuro siglo XV.
2. Ajangizen eraketa politikoa.
   La formación política de Ajangiz.

2

XV. Mendea

El Siglo XV

1.- XV. MENDE ILUNA

XV. mendean be ez dago Ajangizen barri emoten dauan dokumentazino askorik. 1445eko agiri bakar honetantxe aitatzen da Ajangiz, inguruetan alkarren arerio ziran bandoek izandako burrukea kontetan danean:

1.- EL OSCURO SIGLO XV

La muy escasa documentación sobre Ajangiz se mantiene durante todo el siglo XV. En este único documento del año 1445 se narra la batalla que mantuvieron los bandos enemigos en las inmediaciones de Ajangiz:

Crucero de Maloste

[1]GARCIA DE SALAZAR, L.- "Bienandanzas e fortunas". IV. tomoa, 209. or.

GARCIA DE SALAZAR, L.- "Bienandanzas e fortunas". IV. tomoa, 209. or.

"(...) pelearon los de Butrón y los de Arteaga cerca de la rentería de Guernica. En la cual pelea murieron seis hombres y una mujer de Arteaga, y murieron dos hombres de Butrón. Y fueron heridos sesenta hombres de Arteaga, y heridos y corridos hasta pasando la rentería" 1

Agirian aitatzen dan errenteria hori Gernikan egoana da, handik 100 urtera errekearen beste aldera, Ajangizeko errekondora, eroan ebenaren aurrekoa.

Geroago be, 1468an, toki horretan bertan beste burrukaldi bat euki eben Arteaga eta Muxikako be, eta tradizinoak dino burruka hori izandako lekuan altzau ebela Errenteriako kurutzea.

2.- AJANGIZEN ERAKETA POLITIKOA

XV. mendean, inguruko eleizate eta uribilduetatik bereizitako ente politiko lez agertzen da Ajangiz. Eta horren lekuko da, ordurako, Jaurerriko Batzarretan hamaikagarren jesarlekua Ajangizena izatea.

Ajangizen egoera juridikoa eta politikoa bitxia zan, egia esan, ze ez zan ez eleizate ez uribildu: 'ledania' esaten jakona zan. Hau da, berezko lurraldea egokon, argi eta garbi mugatutakoa, inguruko eleizate eta uribilduetatik arlo juridiko eta politikoan independientea zan, baina eleizeari jagokonez beste parrokia batzuen menpe egoan, ez eukan berezko parrokia propiorik eta.

Gainera, Ajangizegaz, beste kontu bitxi bat be gertatu zan: Bizkaian egozan beste ledaniak apurka-apurka inguruetako eleizateek irentsi ebezan arren, Ajangizek bere izateari eutsi egin eutsan, eta horregaitik zan Batzarretan jesarlekua eukan ledania bakarra. Diego Garateren[2] ustez , inguruko parrokien oposizino sendoak (Arratzuko Santo Tomas, Gernikako Andra Mari eta Santos Juanes, Lumoko San Pedro eta Mendatako San Migel Goiaingerua) zerikusi handia eukiko eban Ajangizek egoera horri eutsi izanaren kontuan. Ajangiz parrokia horreen eleiz jurisdikzinopean egoan, eta han beste parrokia bat altzetearen kontra egozan eleiza horreek, ez ebezan nahi bertan kobretan ebezan hamarrenak galdu eta.

Dana dala, modu berean, inguruko parrokien arteko tentsino hori lagungarria izan zan Ajangizeko ledaniak bere horretan segiduteko, ze inork ez eban nahi Ajangiz besteren baten ardurapean geratzerik, hori gertatzen bazan, beste guztiek ordura arte izandako pribilegioei besteren baten mesedetan uko egin beharko eutseen eta.

La rentería que reseña el documento se refiere a la situada en Gernika, unos 100 años antes que trasladaran el tal edificio al otro margen de la ría, a la orilla de Ajangiz.

Más adelante, en el año 1468, se libró allí mismo otra batalla entre las casas de Arteaga y de Muxica, y dice la tradición que en el lugar del tal combate se levantó el crucero de Rentería.

2.- LA FORMACIÓN POLÍTICA DE AJANGIZ

Durante el siglo XV, Ajangiz aparece ya como un ente político diferenciado de las anteiglesias y villas de su alrededor. Buena prueba de ello es que, para entonces, ya ocupaba el undécimo puesto en las Juntas del señorío.

Ajangiz mantenía una situación jurídica y política muy curiosa, ya que no era anteiglesia ni tampoco villa: era una ledanía. Es decir, tenía un territorio de su propiedad claro y delimitado, era independiente jurídica y políticamente de las otras anteiglesias y villas, pero dependía eclesialmente de otras parroquias, ya que no tenía una parroquia propia.

Además, ocurrió con Ajangiz otra curiosidad: mientras que las otras ledanías que existían en Bizkaia fueron absorbidas paulatinamente por las anteiglesias de su entorno, Ajangiz subsistió, de modo que era la única ledanía con asiento en las Juntas. La razón de tal subsistencia - en opinión de Diego Garate [2]- puede encontrarse en la fuerte oposición de las parroquias vecinas (Santo Tomás de Arrazua, Santa María y Santos Juanes de Gernika, San Pedro de Luno y San Miguel Arcángel de Mendata), bajo cuya jurisdicción eclesiástica se encontraba Ajangiz, que impidieron que se levantara una nueva parroquia, ya que no deseaban perder los diezmos que allí cobraban.

Pero esa misma tensión entre las diferentes parroquias del entorno facilitó la supervivencia de la ledanía, ya que impidió que Ajangiz se incorpora a alguna de ellas, porque ninguna de las parroquias deseaba renunciar a sus privilegios a favor de las otras.

[2]GARATE MAIDAGAN, D.- "Ajangiz y la Rentería". Prentsan.

GARATE MAIDAGAN, D.- "Ajangiz y la Rentería". Prentsan.

XVI. Mendea

El Siglo XVI

3

1. Errenteria-etxea.
   Se levanta la casa rentería.
2. Hazkunde ekonomikoa.
   El gran despegue económico.
3. Errenteriako portua.
   El puerto de Rentería.
4. Errenteriako azokea eta merkadua.
   La feria y el mercado de Rentería.
5. Errenteriako ermita bien jatorria.
   Orígenes de las dos ermitas de Rentería.
6. "Urrengo" errotearen jatorriak.
   Orígenes del molino Urrengo

3

XVI. Mendea

El Siglo XVI

1.- ERRENTERIA -ETXEA

XVI. mende osoan, Ajangizeri jazotako gertaerarik garrantzitsuena errenteria-etxea Gernikatik errekearen beste aldera pasetea izan zan, gaur egun Errenteria auzoa dan gunera.

1.- SE LEVANTA LA CASA RENTERIA

El hecho más importante de todo el siglo XVI para Ajangiz lo constituye el traslado de la casa rentería de Gernika a la otra orilla de la ría, a la zona que ahora conocemos como el barrio de la Rentería.

La casa rentería al otro lado de la ría

Errenteria zan burdineari egokozan zergak kontrolau eta kobretako etxea edo lonjea. Aguirre Gandarias [1] irakasleak dino, etxe horren deskripzinoa egitean, burdinearen eta era guztietako "burdinkien" gordelekutzat erabilten zan eraikin publikoa zala, eta bertan, behin produktu horreek balantza ofizialetan pisau eta gero, aginduzko eskubideak ordaindu egin behar izaten zirala.

Historian hainbat errenteria etxe [2] egon izan dira Lumo eleizatean eta Gernika uribilduan. Baina jabeek, betidanik Mezetatarrek, tokiz aldatzen ebezan errekondoak lohiz beteten ziran bakotxean.

Gernikako alderdian egondako azkenengo errenteria San Juan eleizearen aldamenean egon zan. Hantxe egon zan hainbat urtetan, harik eta XVI. mendearen hasierako hamarkadetan errekearen beste aldera eroatea pentsau eben arte.

Ajangizeko errokondora eroatearen zergaitia

Arrazoi bakarra baino gehiago dagoz errenteria-etxea errekearen ertz batetik bestera eroan izana espliketako:

Lehenengo eta bat, errekea behin eta barriro lohiz beteten zala, herritarren kontsumorako inguruko basoetako arbolak era masiboan mozteak eragindako sedimentuakaitik eta –batez be– inguruetako burdinoletako hondakinakaitik, ze burdinoletan burdingaia egur-ikatzez egindako sute ikaragarrietan urtzen eben, eta horretarako egur asko behar zan. Gainera, aldi berean, horrenbeste arbola mozten zanez basoetako lurra erosionetan joian eta erreken eta itsasadarren hondoan pilatu egiten zan. Beraz, ez da arraroa Gernika 1466an, sortu zanetik ehun urtera, errekearen ezkerreko aldea gaur egun Artekale dagoan lekutik Ocho de Enero kaleraino mobidu izana, sedimentuak uraskan apurka-apurka pilatzen joan ostean. Horren guztiorrengaitik, zentzuzkoa da pentsetea hurrengo urteetan be bardin joango zala lohiz beteten, eta orduan portua eta errenteria bera be, ontziek ainguralekura sartu eta handik urteteko gero eta zailtasun handiagoak izango ebezanez, errekearen beste aldera eroan behar izango ebezala; Ajangizeko alderdira hain zuzen.

Beste arrazoi bat izan lei sasoi haretan Bizkaiak ezagutu eban egoera ekonomiko oparoa. XVI. mendearen zati handi baten, burdinolak lanaz gainezka ibili ziran, landutako burdinearen eskariari erantzun ezinik: barrak, laminaduak, tailerretarako erremintak, baserrirako tresnak, ontzientzako aingurak, eta abar. Egoera ekonomikoa holako

La rentería era una casa o una lonja destinada a controlar y a cobrar los impuestos pertinentes al hierro, y es definida por el profesor Aguirre Gandarias [1] como aquel edificio público que se destinaba para depósito oficial del hierro y de toda clase de 'ferrajes', y donde, una vez pesados tales productos con las balanzas oficiales, tenían que pagar los preceptivos derechos.

A lo largo de la historia existieron varias casas rentería [2] en la anteiglesia de Lumo y en la villa de Gernika. Lo que ocurre es que sus dueños, los sempiternos Mezeta, fueron cambiando su ubicación en la medida que la ría se iba colmatando.

La última rentería existente en la orilla de Gernika estuvo situada en torno a la iglesia de San Juan. Allí se mantuvo durante décadas, hasta que hubo de trasladarse a la otra orilla en las primeras décadas del siglo XVI.

Causas del traslado a la orilla de Ajangiz

Existen varias razones que explican las causas del cambio de ubicación desde una orilla a la otra:

En primer lugar, la ría continuó colmatándose merced a los sedimentos que producían las masivas talas de árboles para consumo de los vecinos y –sobre todo- de las ferrerías del entorno, ya que éstas fundían el mineral de hierro mediante unas enormes piras de fuego realizadas con carbón vegetal, lo que exigía unas ingentes cantidades de madera. Y, a su vez, las importantes talas provocaban que el suelo de los bosques se fuera erosionando y depositando en el fondo de los ríos y de las rías. No extraña, pues, que en los cien años que van desde la fundación de la villa de Gernika hasta 1466, la orilla izquierda de la ría se hubiera desplazado desde la actual Artekale hasta la actual calle de Ocho de enero, por la sedimentación de los depósitos en su lecho fluvial. Por todo ello, parece sensato razonar que en las siguientes décadas el río habría continuado colmatándose, y que el puerto y la rentería, ante las creciente dificultades para que los barcos salieran y entraran del tal fondeadero, habrían tenido que trasladarse a la otra orilla del río, a la margen de Ajangiz.

Una segunda razón la encontramos en la excelente coyuntura económica de Bizkaia. Durante gran parte del siglo XVI, las ferrerías no dieron abasto a las peticiones de hierro elaborado, barras, laminados, herramientas de taller, aperos de labranza, anclas, etc.

[1] AGUIRRE GANDARIAS, S.- "Gernika medieval y postmedieval a través de los documentos (1366-1526)". Illunzar, Erdi Aroko arkeologiari buruzko 92. Jardunaldiak. Gernika-Lumo. 1991. urtea.

AGUIRRE GANDARIAS, S.- "Gernika medieval y postmedieval a través de los documentos (1366-1526)". Illunzar 92. Jornadas de arqueología medieval. Gernika-Lumo. Año 1991.

[2] ITURRIARTE MARTINEZ, A. – "Las tres rentérías de Lumo y de Gernika". Aldaba aldizkaria, 121. zk.. 2003. urtea.

ITURRIARTE MARTINEZ, A. – "Las tres rentérías de Lumo y de Gernika". Revista Aldaba, nº 121. Año 2003.

ona izanda, lurgaineko eta uretako merkataritzeak be garai gozoa bizi izango eban, eta jarduera merkatari hori bideratzeko be errepide, portu eta errenteria biziak eta eginkorrak beharko ziran. Beraz, ez zan bidezkoa Gernikako portu zaharra orduan egoan egoera haretan mantenidutea, ze nabegazinorako arazo larriak eukazan, ubideak ez eukan-eta sakonera nahikoa. Orduko arduradunak laster konturatu ziran Bizkaiak bizi eban garai ekonomiko oparo ha ezin zala galdu eta aprobetxau beharra egoala, eta portua eta errenteria-etxea errekearen beste aldera eroatea pentsauko eben, han nabegazinorako baldintzak askoz hobeak ziran eta.

Hirugarren arrazoia Gernikan 1521ean eta 1537an izandako suteetan datza. Sute bi hareetan Gernika uribilduko ia eraikin guztiak erre ziran, eta familia askok ondoko Ajangiz ledaniara joatea erabagi eben. Hantxe geratu ziran bizi izaten, eta holantxe sortu zan inguru horretako lehenengo herrigunea, ordura arte inor bizi izan ez zan zelaietan.

Sobra decir que con tal favorable situación económica, el comercio terrestre y el fluvial vivieron unos momentos particularmente dulces, en los que se precisaban caminos, puertos y rentérías ágiles y eficaces. Por esa razón, no era de recibo mantener el viejo puerto de Gernika con sus graves problemas de navegabilidad, causados por el poco calado de su canal. Aquellos antepasados se dieron cuenta de que no podían dejar escapar la ocasión de aprovecharse del gran momento económico que se vivía en Bizkaia, y determinaron el traslado del puerto y de la rentería al otro lado de la ría, donde las condiciones de navegación eran mucho mejores.

Una tercera razón estriba en los incendios que sufrió Gernika en los años 1521 y 1537. Entre ambos desastres se quemaron casi todos los edificios de la villa de Gernika, lo que ocasionó que muchas familias se trasladaran a la vecina ledanía de Ajangiz, donde se asentaron, lo que determinó la aparición del primer enclave urbano, en lo que antes no era sino una sucesión de campas deshabitadas.



Ajangizeko lehenengo errenteria -etxearen kokalekua

Ajangiz alderdiko lehenengo errenteria-etxea gaur egun Ama Mesedetakoen eleizea eta komentua dagozan tokian lekutu eben. Toki zehatza dakigu, ze komentu horretako artxiboan horren barri emoten daben agiri batzuk dagoz gordeta. Lehenengoan hauxe dago idatzita:

Ubicación de la primera casa rentería en Ajanguiz

La primera casa rentería en la orilla de Ajangiz se instaló donde ahora se levantan el convento y la iglesia de las Madres Mercedarias. Lo podemos afirmar con tal exactitud gracias a unos documentos que existen en el archivo del tal convento. En el primero de ellos se señala lo siguiente:

"(...) En el año 1620 fallecía en su casa de la rentería de Ajangiz Juan Iñiguez de Arteaga, (...) quién dejó todos sus bienes y accedió a que su casa de la renteria se convirtiera en convento." [3]

Beste dokumentu baten, 1624koan [4], esaten da:

Un segundo documento, fechado en el año 1624, [4] manifiesta que:

"(...) el sitio donde está la dicha casa, es el lugar de la rentería, cerca de la villa de Guernica".

Hau da, mesedetako mojek dohaintza lez hartu eben errenteria-etxea 1620an, eta 1625ean joan ziran bertara.

Es decir, las monjas mercedarias recibieron en donación la casa rentería en el año 1620, y la ocuparon en el año 1625.

Gernika, Ajangizeko ibarraren jabe

Arrazoi nagusi bi egon ziran portua eta errenteria holako leku paduratsuan eta itxura baten osasunerako hain egokia ez zanean lekutzeko, nahiz eta ia itsasoaren maila berean egon eta edozein euri-jasa edo itsasgoratan arazo larriak izango ebezala bistakoa izan: batetik, toki horretan errekea ez egoalako sedimentuz eta lohiz hain beteta; horrek erabat erraztuko eban ontzien nabegabilidadea. Bestetik, gernikarrek uste ebelako errenteria barria eta portu barria euren jurisdikzinopean egiten ebilzala. Kontuan izan behar dogu, 1366an On Tellok Lumori independentzia emon eutsanetik, Gernika zala Forutik Arabietarainoko ibar eta padura guztien jabea, eta jabe bakartzat eukala bere burua. Apreziazino horrek haserre orokorra eragin eban ibar hareen ondoko eleizateetan, eta Ajangiz ledanian be bai. Baina sasoi haretan ez egoan ezer egiterik –orduan– hain indartsua zan uribilduaren aurrean.

Holan ba, gernikarrek sikatu egin ebezan gaur egun Mesedetako eleizeak eta komentuak hartzen dabezan ibarguneak, eta hantxe bertan altzau ebezan portu barria eta errenteria-etxe barria. Seguru egozan, eta inork ez eban zalantzan ipini, itsasadarrari irabazitako lur hareek gernikarren jabetzapekoak eta jurisdikzinopekoak zirala, nahiz eta egotez Ajangiz ledanian egon.

Sekulako gorabehera legalak ibili ebezan, ze ajangiztarrek esaten eben portua eta errenteria baimen

Gernika propietaria de la vega de Ajangiz

Las razones para ubicar el puerto y la rentería en ese lugar tan marismeño y relativamente insalubre, con una altura sobre el nivel del mar tan baja que cualquier aguaducho o cualquier pleamar fuerte les creaban serios problemas de inundaciones, eran dos: En primer lugar, porque en ese lugar la ría no se hallaba tan colmatada por sedimentos, lo que garantizaba una buena navegabilidad. En segundo lugar, porque los guerniqueses creían firmemente que estaban levantando la nueva rentería y el nuevo puerto en su jurisdicción. Tengamos en cuenta que, desde que en 1366 Don Tello le diera la independencia de Lumo, Gernika mantenía los dominios sobre todas las vegas o marismas (ibarras) entre Forua y Arabieta, y los consideraba de su exclusiva propiedad. Esta apreciación había originado una gran insatisfacción en las anteiglesias colindantes a las dichas ibarras en general, y en la ledanía de Ajangiz en particular. Pero nada podían hacer frente a la – por entonces– todopoderosa villa.

De ese modo, los guerniqueses desecaron la zona marismeña constituida por lo que hoy son el convento y la iglesia de La Merced, y levantaron allí el nuevo puerto y la nueva casa rentería, en la absoluta seguridad de que el terreno ganado a la ría era de su exclusiva propiedad y jurisdicción, a pesar de encontrarse físicamente en la ledanía de Ajangiz.

La bronca legal era inevitable, ya que los vecinos de Ajangiz mantenían que aquellos se

[3] ITURRIARTE, A.: "En los orígenes del convento de La Merced: De Ibarruri a la Rentería". Aldaba aldizkaria, 109. zk., 2001. urtea.

ITURRIARTE, A.: "En los orígenes del convento de La Merced: De Ibarruri a la Rentería". Revista Aldaba, nº 109, año 2001.

[4] ITURRIARTE, A.: Ibidem.

ITURRIARTE, A.: Ibidem.

barik altzau ebezala kontsejuko lurretan. Onartu ezindako inbasino lez ikusi eben. Horregaitik, Ajangizek (eta, beraren izenean, Bizkaiko jaurerriak) bere esku egon ziran auzi guztiak suspertu zituan portuaren eta errenteria-etxearen jabe egiteko. Portuak eta errenteria-etxeak ekarriko ebezan dirutzak gogoan hartuta merezi eban beharrezko auzi guztiak bideratzen ahalegintzea euren jurisdikzinopean egoten segidu egien (Gernikaren kasuan) edo eraikuntza bien jabe egiteko (Ajangizen kasuan).

Horren ondorioz, Ajangizen eta Gernikaren arteko hartuemonak gainbeheran hondatzen joan ziran, harik eta gertaera batek, 1565ean, sekulako krisialdia eragin eban arte.

Ibarreko gorabeherea

Gorabeherea 1565eko agorrilaren lehenengo egunean jazo zan, orduan Gernikako alkate zan Clemente de Olaeta ibarreko larran egozan Ajangizeko abereak Gernikarako batzen hasi zanean. Irakurri daigun kontakizuna:

habían instalado sin permiso en los terrenos del concejo, y lo interpretaban como una inadmisible invasión. Por ello, Ajangiz (y en su nombre el señorío de Bizkaia) promovió cuantos litigios pudo, para adueñarse del puerto y de la casa rentería. El dineral que dejaba el puerto y la rentería bien merecía los litigios necesarios para mantenerla en su jurisdicción (en el caso de Gernika), o para hacerse con ella (en el caso de Ajangiz)

De ese modo, las relaciones entre Ajangiz y Gernika se fueron deteriorando hasta que un incidente, en al año 1565, desencadenó la gran crisis.

El incidente de la vega

El incidente ocurrió el día uno de agosto de 1565, cuando el alcalde de Gernika, Clemente de Olaeta, se dispuso a apresar el ganado de Ajangiz que pastaba en la vega. Escuchemos su relato:

"(....) Clemente de Olaeta, el primero de agosto, envió ciertos fieles y jurados para visitar la ibarra y prender los ganados que andaban en ellas paciendo la hierba de las dichas ibarras. Y él mismo, con algunos otros vecinos, fue tras ellos en mucha paz y sosiego, y sin armas algunas.

Y porque los oficiales y jurados (...) dieron voces pidiendo ayuda, fue a saber lo que era. Y vio que Martín de Goitisolo, Pedro de Madalen y otros habían resistido a los dichos fieles y jurados. Y el dicho Martín de Goitisolo se había pasado con sus bueyes a la otra parte del río. Y desde allí estaba dando voces al dicho Clemente de Olaeta, que estaba con vara de justicia, y a los otros oficiales que con él estaban, amenazándoles, desafiándoles y diciéndoles que pasasen a la otra parte del río, y otras palabras y amenazas.

(...) Y Sebastián de la Rentería estaba con una lanza grande y larga, y Lope Martínez de la Rentería con una azcona grande, espada y puñal, y San Juan de Urria, con una espada. Y otros hombres y mujeres en su favor. Y arremetieron al dicho Clemente de Olaeta y le lanzaron muchos golpes para herirle y matarle. Y, además de ello, el dicho Sebastián de la Rentería le asió de su cuerpo y le quebró la vara que en las manos traía. Y le hubiera matado si no fuera por los que allí se hallaron.

(....) Y, al mismo tiempo, María Ibáñez de Momosolo anduvo por el arrabal de la rentería y sus comarcas, convocando y llamando para que fuesen contra el dicho alcalde de la dicha villa, y le hiriesen y le maltratasen. Y a su llamado y convocatoria se juntaron muchos hombres y mujeres contra el dicho alcalde.

(...) Y Lope Martínez de la Rentería, síndico procurador del señorío de Vizcaya, y Sebastián de la Rentería, regidor, (...) eran vecinos del arrabal de la rentería del puerto de Guernica, que es de la otra parte del río." [5]

[5] Ibarretan jazotako gorabeheren azalpena. 1565. urtea. Termino eta jurisdikzinoen gaineko bigarren errege betearazpena. 1772an egindako kopia, Lumo eleizateak eskatuta. Bizkaiko Eleizaren Historia Arkibua.

Explicación de los incidentes acaecidos en las ibarras. Año 1565. Segunda Real ejecutoria sobre los términos y jurisdicciones. Copia realizada en el año 1772 a petición de la anteiglesia de Lumo. Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia.

Gorabehera hori benetan izan zan larria, ze Gernikako ordezkari instituzional gorena eraso ezezik iraindu be egin eben. Uribilduak ezin eban jazoera hori zigor barik pasetan itxi, eta erasoan parte hartu ebenak eta aginteari men egin ez eutsienak zigortzeko eskari judiziala egin eben.

Jazotako gorabeherak salatzeaz gainera, Gernikak hainbeste arrazoi aurkeztu ebazan lursail hareen jabe zala egiaztetako. Holan, agiri baten dinoe:

El incidente había sido gravísimo, ya que se había agredido e insultado a la máxima representación institucional de Gernika. La villa no podía dejar este incidente sin castigo, por lo que solicitó judicialmente la condena de los que tomaron parte en la agresión y el desacato a la autoridad.

Y además de la denuncia de los incidentes, Gernika presentó una batería de razones para demostrar la propiedad de los terrenos en cuestión. Así, en un documento señala que:

"las ibarras que están entre los (...) términos de la presa hasta Zubialdea y el puente de Arabieta, y - por la parte de Bermeo- hasta Foruondo, han sido y son propiedad y posesión de la dicha villa". [6]

Beste dokumentu baten, beste hau argumentetan dabe:

En otro documento, argumenta:

: "(...) Hace poco más o menos veinticuatro años (teniendo en cuenta que el presente escrito data del año 1565, el autor se refiere al año 1541) el alcalde y el regimiento de la villa de Guernica amojonaron el camino que hay desde la dicha villa por las dichas ibarras hasta la presa, y pusieron mojones y puente público, placenteramente viéndolo y sabiéndolo los vecinos de Ajanguiz y de San Pedro de Luno."

Beste hirugarren agiri honetan, Gernika tradizinoan oinarritu zan ibarren gainean eukan jurisdikzinoa justifiketako:

En este tercer documento, Gernika alude a la tradición para justificar su jurisdicción sobre las vegas:

"(...) Y en la dicha villa de Guernica, desde su fundación, han habido jurados, (...) los cuales suelen prender a los ganados que andan en las dichas ibarras y otras heredades. Y así se había usado y guardado desde el dicho tiempo para acá."

Eta azkenerako itxi dogu beste perla hau:

Dejamos para el final esta perla:

"(...)Y el alcalde y regimiento de la dicha villa, y el preboste, los jurados y los vecinos de ella, en cada un año, una o dos veces (... van...) a las ermitas de la Magdalena y San Bartolomé, que está entre Ibinarriaga y Vizcarra, pasando por el rabal de la rentería, viéndolo los vecinos de ella y no contradiciéndolo."

Azken dokumentu horretan agertzen danaren arabera, Gernikakoak ez ziran bakarrik portua eta errenteria-etxea eregi ziran ibarrak eta gunea; euren jurisdikzinopean egozan Madalena ermitea (gaur egun ez da existiduten, baina Malosteko kurutzearen plazea dagoan lekuan egoan) eta San Bartolome ermitea be (beste hau be ez da existiduten, baina Ibinarriaga torretxearen eta Bizkarra baserriaren artean egoan).

Según este último documento, no solo las vegas y la zona en la que se levantaron el puerto y la casa rentería eran de Gernika, sino que también estaban bajo su jurisdicción las ermitas de la Magdalena (ermita desaparecida, situada en lo que hoy conocemos como la plaza de la cruz de Maloste) y la de san Bartolomé (ermita también desaparecida, situada entre la casa torre de Ibinarriaga y el caserío de Bizkarra).

Ajangizek bere alde aurkeztutako arrazoiak

Ajangizek beste dokumentu [7] honegaz egin eban bere buruaren alde. Agirian ukatu egiten zan uribildukoek esandakoa, eta hara hemen argumentuak:

Razones que expuso Ajangiz en su favor

Ajangiz se defendió emitiendo el siguiente documento [7] en el que desmentía lo señalado por la villa, y argumentaba lo siguiente:

"(...) La dicha villa no tiene más jurisdicción que lo que se contiene dentro de los muros de ella hasta las calzadas que están junto y alrededor de la dicha villa, con las casas labradoriegas y avecindadas a ella. Y no más. Y todo lo otro es propiedad y jurisdicción del dicho señorío y de los jueces de la Tierra Llana."

[6] Ibidem.

Ibidem.

[7] Jaurerriaren eskaerea, 1569ko martiaren 26koa. Termino eta jurisdikzinoen gaineko betearazpena. 1772an egindako kopia, Lumo eleizateak eskatuta. Bizkaiko Eleizaren Historia Arkibua.

Petición del señorío del 26 de marzo de 1569. Ejecutoria sobre términos y jurisdicciones. Copia realizada en el año 1772 a petición de la anteiglesia de Lumo. Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia.

Epaile nagusiaren epaia

1569an Bizkaiko epaile nagusiak epai hauxe emon eban:

Sentencia del juez mayor

En el año 1569 el juez mayor de Bizkaia dictó la siguiente sentencia:

" En el pleito entre (...) el señorío de Vizcaya (...) y la villa de Guernica, (...) fallo que declaro las ibarras del puente de Arabieta y las casas de Zubialdea, y de allí hasta dar en la rentería, y desde allí hasta la torre vieja de Urdaybay (...) ser todo ello término propio de la dicha villa de Guernica."

Ajangizen errekurtsoa epaile nagusiaren epaiari

Epaile nagusiaren epaia ez zan Ajangizen asmoen gustukoa izan, jakina. Beraz, jaurerriaren laguntzinoagaz, beste agiri [8] bat aurkeztu eban aurreko epaia balio barik ixteko eskatuaz, alegazino honeek aurkeztuta:

Ajangiz recurre la sentencia del juez mayor

La sentencia del juez mayor no satisfizo, obviamente, las aspiraciones de Ajangiz. Por ello, con el apoyo del señorío, presentó otro documento [8] en el que solicitaba la anulación de la sentencia anterior, alegando lo siguiente:

"(...) Porque esta parte (Ajangiz), antes de que se fundase la villa de Guernica (...), tenía sus privilegios, fueros y franquezas, para que en la dicha Tierra Llana y señorío de Vizcaya ningún juez ni alcalde de las villas pudiese juzgar de ellos ni de sus causas. Y en tal posesión estaban siempre.

Y la dicha sentencia no se pudo firmar por un privilegio que dicen haber dado el dicho conde (don Tello), porque en él no se contiene que da jurisdicción alguna. Y porque el dicho conde no pudo dar lo que no era de sus partes, sino solamente lo que era suyo propio, a saber: ciertas casas y caserías que eran suyas propias del dicho señorío, distintas de la jurisdicción de la dicha Tierra Llana.

Y porque el tal privilegio no hacía mención de las anteiglesias inclusas en los límites -que son catorce-, ni de sus privilegios (....) Y porque no fue su voluntad dar el dicho privilegio con tan gran perjuicio para mis partes."

Behin betiko epaia

Beste bost urte igaro ziran harik eta beste epai bat emon arte jaurerriak Ajangizen izenean egindako errekusazinoari erantzunaz. Atzenean, 1575ean, hainbeste denporan itxarondako erabagia [9] etorri zan. Hauxe:

Sentencia definitiva

Aún debieron pasar otros cinco años para que se dictara otra sentencia a la recusación formulada por el señorío en nombre de Ajangiz. Por fin, en el año 1575, se produjo la tan esperada resolución [9], que dice así:

"En el pleito entre el concejo (...) de la villa de Guernica y (...) el señorío de Vizcaya, (...) fallamos:

Que la dicha villa de Guernica y los alcaldes ordinarios de ella tienen jurisdicción civil y criminal (...) dentro de la dicha villa, hasta las calzadas de alrededor de ellas, en todas las casas y caserías labradoriegas avecindadas y acensuadas a la dicha villa, y en sus pertenecidos y heredades pertenecientes a las dichas casas.

(...) Y en cuanto a las ibarras, (...) debemos revocar la sentencia de dicho Juez Mayor (...) y declaramos pertenecer al dicho señorío de Vizcaya la jurisdicción (...) de las ibarras del puente de Arabieta y las calzadas de Zubialdea hasta dar en la rentería. Y de allí, hasta la torre vieja de Urdaybay. (...)".

Mugarri barriak ipini beharra

Argi geratu zan Gernikak galdu egin ebana Ajangizegaz izandako burruka legala. Ibarrak tradizinoz bere jabetzapekotzat hartu izan zituan ordura arte eta, azken hamarkadetan, baita errenteri-etxe barria eta portu barria altzau ebezaneko Ajangizeko errekondoko lur-sailak be. Baina, artean, azken epai harek errealidade latza erakutsi eutsan Gernikari: Uribildu barruko urigunearen jabe baino ez zan, eta uribilduan auzotutako etxeena, 'uriauzo' esaten

Necesidad de un nuevo amojonamiento

A todas luces, Gernika había perdido la batalla legal que mantenía con Ajangiz. Si tradicionalmente se había arrogado la propiedad de las ibarras y, en las últimas décadas, la propiedad de los terrenos sobre los que levantó la nueva casa rentería y el nuevo puerto en la orilla de Ajangiz, ahora la sentencia le ponía ante una cruda realidad: Solo era propietaria del interior de su casco urbano y de las casas avecindadas a

[8] Epaile nagusiaren epaiaren kontra jaurerriak agertutako erabagia. 1570/07/01. Termino eta jurisdikzinoen gaineko betearazpena. 1772an egindako kopia, Lumo eleizateak eskatuta. Bizkaiko Eleizaren Historia Arkibua.

Pronunciación del señorío contra la sentencia del Juez Mayor. 01/07/1570. Ejecutoria sobre términos y jurisdicciones. Copia realizada en el año 1772 a petición de la anteiglesia de Lumo. Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia.

[9] Lege-gaitasunaren epaia. 1575/09/09. Termino eta jurisdikzinoen gaineko betearazpena. 1772an egindako kopia, Lumo eleizateak eskatuta. Bizkaiko Eleizaren Historia Arkibua.

Sentencia de revista. 09/09/1575. Ejecutoria sobre términos y jurisdicciones. Copia realizada en el año 1772 a petición de la anteiglesia de Lumo. Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia.

jakenena. Ez beste ezerena. Panorama hori ikusita, Gernikaren txandea izan zan ebazpen hori errekurriduteko.

Egoereak mundu guztia hasarratuazo eban: Jaurerria, Ajangiz eta uribildua bera be bai, ze dirutza itzelak gastau behar izan ebezan sekularioan luzatzen ziran lege-gatazka hareetan, eta epaietan emondako soluzinoak ez ziran alderdi bietako batentzat be guztiz gustukoak. Goi instantzia judizial eta politikoak be ez egozan bape pozik, ezin eutsien arazoari konponbide argirik topau eta. Gainera, auzia luzeegi bihurtzen hasita egoan, ze -edozein epai emonda be- galtzaile urteten eban alderdiak denporea alferrik galdu barik ebatziari errekurtsoa aurkezten eutsan, eta inoiz amairik eukiko ez eban liskar bihurtu zan.

Gauzak holan, instantzia judizial eta politiko horreek eurak hasi ziran Gernika uribilduaren jabetzapeko mugak zehazteko mugarri barriak ipinteko aukerea baloretan. Mugak argi eta garbi zehaztu behar ziran, behin betiko, ordura arteko mugarriketa zaharrak, zehatza ez izatearren, hainbeste zalantza sortzen ebazan eta. Gainera legeetako terminoakaz be bardin gertatzen zanez, nahastea eragiten eben inplikautako alderdietan, eta bakotxak bere erara ulertzen ebazan.

1576ko urtarrilaren 19ko mugarriketea

Holan ba, 1576ko urtarrilaren 19an, Bizkaiko jaurerriko korrejidoreak uribilduaren mugarri barriak ipintea erabagi eban. Ondorioak negargarriak izan ziran Gernikarentzat, ze perimetro txiki-txiki batera mugatuta geratu zan, gaur egungo San Juan, Allende Salazar, Adolfo Urioste eta Ocho de Enero kaleek inguratzen daben tartera. Hau da, Lumoko portu zaharrak hartzen eban espazioa, 'Gernika' izenekoa, On Tellok gune nagusitik bereizi eta 1366an uribildu bihurtutako ha, eta gernikarrek sikatu eta errekeari irabazitako lur-sailak (gaur egungo Artekale, Barrenkale eta Ocho de Enero).

Baina, lur-sail handiak galdu ezezik, irabazi-iturririk garrantzitsuenak be galdu ebazan: portua eta errenteria, epaileen erabagiak Ajangizen jurisdikzinopean lekutu ebazan eta. Jabetza bi horreek galduta, Gernika uribilduak negozio bi hareetan mobiduten ziran dirutzak, burdinearen trafikoagaitik kobretan ziran zergetatik eratorritakoak, betiko urruntzen ikusi ebazan.

la dicha villa (los 'uriauzos'). Nada más. Con este panorama, ahora era Gernika quien recurría la última sentencia.

La situación comenzaba a parecer enojosa a todo el mundo: Al señorío, a Ajangiz y a la villa, porque se estaban gastando ingentes fondos en unas batallas legales en las que las tramas burocráticas se eternizaban y los resultados no eran enteramente satisfactorios para ninguna de las dos partes en litigio. Tampoco las altas instancias judiciales y políticas estaban felices, ya que no encontraban una solución clara al conflicto y el litigio se estaba haciendo inmensamente largo, toda vez que –ante cualquier sentencia– la parte que se sentía perdedora inmediatamente recurría el fallo, con lo que era "el cuento de nunca acabar".

Así las cosas, esas mismas altas instancias judiciales y políticas empezaron a valorar la posibilidad de realizar un nuevo amojonamiento de la villa de Gernika, esta vez claro y definitivo, que despejara las dudas que se mantenían por un amojonamiento antiguo e impreciso, y unas leyes confusas en sus términos y solo parcialmente admitidas por unos y otros.

El amojonamiento del 19 de enero de 1576

Así, el día 19 de enero del año 1576 el corregidor del señorío de Bizkaia procedió a amojonar la villa. El resultado fue devastador para los intereses de Gernika, ya que quedaba constreñida en un perímetro enano, cuyos lados eran las actuales calles de San Juan, Allende Salazar, Adolfo Urioste y Ocho de Enero. Es decir, el espacio que ocupaba el antiguo puerto de Lumo, denominado Gernika, al que Don Tello separó de su matriz e hizo villa en el año 1366, con el añadido de las tierras que los guerniqueses desecaron y ganaron a la ría (actuales Artekale, Barrenkale y Ocho de Enero)

Pero, además de perder importantes territorios, perdía lo sustancial: El puerto y la rentería, a los que la resolución judicial situaban en jurisdicción de Ajangiz. Con esta pérdida, la villa de Gernika veía esfumarse el dineral que movían ambos tinglados, merced a los impuestos que cobraban al tráfico del hierro

Gernika errenteria etxe barik

Mugarri barriak ipini ziranetik, Gernika han ezarritakoari uko egiten saiatu zan behin eta barriro. Liskarra 1596ko urrira arte luzatu zan, uribilduak berak errenteria etxea ez egoala bere juridikzinopean agiri baten egiaztau eban arte hain zuzen. Agiri horretan [10] esaten danez:

Gernika deja de tener una casa rentería

Desde que terminó el tal amojonamiento, Gernika trató de recusar lo allí establecido. Se alargó el conflicto hasta octubre de 1596, cuando la propia villa hubo de certificar documentalmente que ya no tenía bajo su jurisdicción la casa rentería. En tal documento [10] se señala que:

"(...) los procuradores de las dichas villas de Bilbao, Guernica, Larrabezua y Lanestosa decimos y protestamos (para) que no se carguen a nuestras repúblicas costas algunas del dicho pleito de sobre la visita que los dichos diputados pretenden hacer a las dichas pesas de rentería, (...) por no haber rentería en las dichas villas de Guernica, Larrabezua y Lanestosa (...)"

Holantxe amaitu zan Gernikaren jabetzapeko errenteria etxeen historia. 1596tik aurrera beste aldikada bat hasi zan: Ajangizen jabetzapeko errenteria etxeena.

Se da así fin a la historia de las casas rentería bajo la propiedad de Gernika. A partir del año 1596 comienza una nueva etapa: la de las casas rentería bajo la propiedad de Ajangiz.

2.- HAZKUNDE EKONOMIKOA

Bizkaiko burdinolen une oparoa

XV. mendearen erdialdetik aurrera hasi zan nagusitzen energia hidraulikoaren erabilerea burdinoletako zereginetan. Erreketako urari esker, ordura arte burdinea lantzeko ezinbesteko izandako giza-indarraren ordez (burdinea mailukadaka biguntzeko, edo burdinea galdatu ostean totxoetan geratutako zepak kolpeka kentzeko –mailukeagaz eurak be–, eta abar) gabiak erabilten hasi ziran. Errobera hidraulikoaren mobimentuagaz gabiak minerala edo totxoak kolpeka birrintzen zituan.

Teknologia barri hareri esker, Bizkaiko burdinearen produkzinoa erabat handitu zan, eta beste gertaera lagungarri batzuk gehituta Ameriketa deskubridu izana, esate baterako–, XVI. mendean eskaera siderurgikoa gero eta gehiago hazi zan. Kontuan izan behar dogu gizakia Ameriketara heldu eta gero, garai haretan, lur-sail barriak goldatzeaz gainera nekazaritza arloko jarduerak be ugaritu egin zirala (horretarako, lanabes gehiago behar zan) eta merkataritzea orokortu egin zala (itsasontzi, aingura, untza… gehiagoren beharra ekarri eban horrek guztiak). Gainera, aldikada haretan estadu nazional modernoak sortzen hasi ziran eta –eurakaz batera– armada nazionalak be bai, eta burdinazko armen eskaerea be ikaragarri handitu zan.

2.- EL GRAN DESPEGUE ECONÓMICO

El excelente momento de las ferrerías vizcaínas

Desde mediados del siglo XV en adelante se comenzó a generalizar la energía hidráulica en las labores de las ferrerías. Gracias a ella, la fuerza humana, que había sido necesaria en todas las operaciones ferronas (para desmenuzar el mineral a golpe de martillo, para eliminar a golpes -también de martillo- las escorias que quedaban en los tochos tras la fundición, etc), fue siendo sustituida por los martinetes que, gracias al movimiento de una rueda hidráulica, servían para golpear al mineral o a los tochos.

Gracias a esta nueva tecnología, se produjo un gran aumento en la producción del hierro vizcaíno, lo que unido a otras situaciones –como la llegada a América–, provocó una gran demanda siderúrgica durante el siglo XVI. Tengamos en cuenta que con la llegada a América, en esta época, además de roturarse nuevas tierras y de aumentar la producción agrícola (con la necesidad de más aperos agrícolas), se generalizó el comercio (lo que propició la necesidad de nuevos y mayores barcos, anclas, clavos, etc) . Además, en este periodo aparecieron los estados nacionales modernos y –con ellos– los ejércitos nacionales, con lo que aumentó la demanda de armas fabricadas en hierro.

[10] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. Uribildu eta hirietako aktak. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y ciudad. Juntas Generales de Bizkaia.

Hazkunde ekonomiko argiko egoera haretan, Bizkaiko burdinea gero eta ezagunagoa egin zan Europako eta penintsulako merkaduetan, lurraldea Europako iparraldeko portu nagusienakaz lotzen eben kanal komertzial eraginkorrei esker. Ondorioz, Bizkaian gero eta burdinola gehiago egoan, eta azkenean Bizkaiko motore ekonomiko bihurtu ziran. Kontuan hartu behar dogu burdinola bakotxean lau, bost edo sei behargin baino egon ez arren, beste hainbat lanpostu sortzen ebezala inguruan. Ekarri daiguzan gogora: mehategietatik burdinea ateraten eben mehagizonak, handik portuetaraino karreietan ebenak, ainguralekuetan merkatalgaia batetik bestera mobiduten eben zamaketariak, errenterietaraino eroaten ebenak, aduana horreetako beharginak, burdinea burdinoletaraino eroaten ebenak, aitatutako olagizonak eurak, uharka, antepara eta ubideak egin eta konpontzen ebezanak, arboladiak zaintzen ebezanak, arbolak moztu eta ikatz bihurtzen ebezanak, errementariak, forjariak, ontziak egin eta konpontzen ebezanak, eta abar. Eta mundu nahasi horretan ordena pixka bat ipinten ahalegintzeko, burdinolen alkatea be baegoan, Bizkaiko burdinolen 1440ko Foruko legeria kontuan hartuta.

Gernikako itsasadarreko ubidearen garrantzia

Ibaizabal ibaiaren ezkerraldeko mehategietatik ateratako burdinea mandoen gainean ipini eta Muskizko San Martin, Portugalete, Galindo eta abarretako portuetaraino bajetan ziran abereak zamaz beteta. Han, minerala itsasontzi handietara sartu eta ontziok Bizkaiko kostaldearen ertza burdinaz beteta ibilten eben itsasoz, harik eta, gure kasu honetan adibidez, Bermeoko porturaino heldu arte. Bertan, burdinea itsasontzi handi hareetatik luzera eta sakonera txikiagoko beste batzuetara pasetan eben, itsasadarrean zehar barrualdera sartu eta Ajangizeko portura eta errenteria etxeraino heltzeko askoz egokiagoetara.

Itsasadarrean nabegetako euken modua kontuan hartuta, hiru ontzi mota egozan: 'hegoak, 'gailupak' eta 'txanelak'. Elena Legorbururen [11] berbetara jota, 'gailupak' eta 'hegoak ziran itsasadarretan eta erreketan gehien erabilitako ontziak, ze:

En esta coyuntura de crecimiento económico, el hierro vizcaíno estaba conquistando los mercados europeos y peninsulares, merced a unos eficaces canales comerciales que la unían con los principales puertos del norte de Europa. Por todo ello, el número de ferrerías vizcaínas aumentaba sin cesar, y éstas se convirtieron en el motor económico de Bizkaia. Tengamos en cuenta que, a pesar de que en cada ferrería se empleaban solamente cuatro, cinco o seis personas, su trabajo generaba un gran número de puestos de trabajo. Recordémoslos: Los que extraían el mineral de las minas, los que lo acarreaban desde allí a los puertos, los estibadores que movían la mercancía en los fondeaderos, los que lo llevaban a las rentería, los empleados de estas aduanas, los que transportaban el hierro a las ferrerías, los citados ferrones, los que construían o reparaban las presas, anteparas y cauces, los que cuidaban el arbolado, los que lo cortaban y lo convertían en carbón, los herreros, forjadores, los que construían o reparaban los botes, etc. Y tratando de poner orden en este complejo mundo estaba el alcalde de ferrerías, interpretando la legislación del Fuero de las ferrerías de Bizkaia, del año 1440.

La importante ruta fluvial de la ría de Gernika

El mineral de hierro extraído en las minas de la margen izquierda del Nervión era cargado en los lomos de mulas, que bajaban cargadas de él hasta los puertos marítimos de San Martín de Muskiz, Portugalete, Galindo, etc. Allí embarcaban el mineral en grandes barcos que se encargaban de bordear la costa con el mineral, hasta llegar, en el caso que nos ocupa, hasta el puerto de Bermeo. Allí se volvía a trasvasar el mineral desde estos grandes navíos a otros con mucha menor eslora y calado, mucho más adecuados para introducirse por la ría, hasta llegar al puerto y la casa rentería de Ajangiz.

Por la forma de impulsarse por la ría, parece que existían tres tipos de embarcaciones: Las 'alas', las 'gallupas' y las 'chanelas'. En palabras de Elena Legorburu [11] , las 'gallupas' y las 'alas' eran las embarcaciones más utilizadas en las rías y ríos, ya que:

"(...) eran alargadas y estrechas para salvar con facilidad aquellos tramos en los que la corriente circulaba con rapidez. Al modo de góndolas venecianas las describió Garibay. (...) Sus dimensiones eran de un metro de manga por ocho de eslora, y su calado era de unos 20 centímetros. (...) Los 'galluperos' se servían de una pértiga para impulsar el movimiento. En cambio, las 'alas' se arrastraban mediante bueyes o caballería desde las dos orillas del río, sobre todo cuando viajaban a contracorriente."

[11] LEGORBURU FAUS, E.- "La labranza del hierro en el País Vasco". Universidad del País Vasco. Año 2.000.

LEGORBURU FAUS, E.- "La labranza del hierro en el País Vasco". Euskal Herriko Unibertsitatea. 2000. urtea.

Azkenik, nabegazinorako arazotsuenak ziran tramoetarako, 'txanela' txikiak erabiliko ebezan, beharginak eurak uretan sartu eta aurrerantz saka egiten eutsienak.

Por último, para los tramos que presentaban mayores dificultades para la navegación se reservaban las pequeñas 'chanelas', que eran empujadas por los mismos hombres sumergidos en el agua.

Zentzu horretan, itsasadarrak burdinea eta landutako produktu siderurgikoak karreietako bide egokiak izan eizan eta jarduera horrek ondo funtzionau eian jaurerriak ardura handiz jokatu arren, Gernikako itsasadarraren kasuan errekeak ekarten eban lohiak eragindako sedimentazinoa gero eta arazo handiagoa zan eta portu batzuen eta hainbat errenteria etxeren kokalekua aldatu egin behar izan zan. Holan, XV. mendearen amaieran, gernikarrek itsasadarra Bermeoraino kanalizetako baimena eskatu eutsien Koroari, ontziek gero eta traba gehiago eukezan itsasotik porturaino heltzeko eta. Baina, kanalizazino hori ez zan gauzatu eta, nabegetea gero eta gatxagoa izan arren, bardin segidu behar izan eben. Holan ikusten da hurrengo agirietan [12] :

En este sentido, a pesar de que el señorío puso todo su interés en garantizar el buen funcionamiento de las rías, como medio para transportar el mineral de hierro y los productos siderúrgicos manufacturados, en el caso de la ría de Gernika, las dificultades derivadas de la sedimentación de depósitos obligaron a ir modificando la ubicación de algunos de los puertos y de sus casas rentería. Así, a finales del siglo XV, los guerniqueses pidieron permiso a la Corona para canalizar la ría hasta Bermeo, por las dificultades que iban apareciendo para la navegación por ella. Pero la tal canalización no se llevó a cabo, y la navegación se siguió realizando a pesar de que las dificultades aumentaban. Así lo observamos en los siguientes documentos [12] :

Lehenengo dokumentua 1572koa da. Gernikako itsasadarreko arbolak garbitu eta sastrakak kentzeko beharrizana aitatzen da bertan:

El primer documento es del año 1572. En él se habla de la necesidad de limpiar y de desbrozar de árboles la ría de Gernika:

"Asimismo, se trató de cómo la ría e canal que suben los bajeles para la rentería y puerto de Ajanguiz estaba ocupada por árboles y ramas de ellos, de tal manera que no podían pasar por ella. Quedó acordado que (...) los dueños de los tales barcos los cortasen y desocupasen, de tal modo que sin ningún embarazo pudiesen andar y pasar. Y cuando dentro del término de tiempo que se les diese no cumpliesen, que por el dicho mandamiento se le diese comisión a Bartolomé Sánchez de Uriona, regidor susodicho, para que a costa de los tales dueños hiciese cortar y desembarazar la dicha ría."

Bigarren agirian, 1579koan, barriro be arazo berari ekin eutsien:

En este segundo documento del año 1579 se vuelve a incidir en lo mismo:

"(...) en la ría y canal y brazo de mar que sube de Mundaka a Guernica pasan los bajeles. Y los bajeleros y navegantes padecen mucho trabajo y daño en sus fustas y personas en no poder subir y bajar libremente en la dicha ría a causa de estar la mayor parte de ella cerrada y ocupada con árboles que están caídos con sus ramas sobre la dicha ría y orilla de ella, comenzando en derecho de la iglesia de Forua hasta la rentería y puerto de Guernica. (...)

Por lo cual, acordaron y mandaron que los dueños de los tales árboles y cada uno de ellos, dentro de quince días de cómo les fuere notificado, corten por el pie o por las ramas, por donde sea necesario, los tales árboles que están en la orilla de la dicha ría y sobre ella, de manera que no hagan ni puedan hacer impedimento ni embarazo alguno a bajeles y fustas que por la dicha ría anduvieren.

Y en caso de que fueren remisos, y si no cumplieren pasado el dicho término en adelante a costa de ellos mismos, el teniente general de Guernica haga cortar y limpiar, de manera que no tengan embarazo alguno para poder navegar, ni reciban daño ni detrimento alguno por causa de los dichos árboles a los dichos bajeles."

Bideek egoera onean egon behar dabe

Necesidad de caminos en perfecto estado

Burdinearen eskari handi horri eskerrak, Bizkaiak bizi eban egoera ekonomiko bikaina ikusita, jaurerria burubelarri hasi zan bai errepideak bai errekabideak ahalik eta egoera onenean zaintzen, ze ondo zaindu ezkero bermatuta eukiko ebazan lurraldeko burdinolen horniketea eta euretan

Con la idea de mantener y de prolongar precisamente por el gran momento económico que vivía Bizkaia gracias a la demanda de hierro, el señorío se afanaba en mantener tanto los caminos como las rutas fluviales en un buen uso, ya que su buen funcionamiento garantizaba un eficaz suministro a las ferrerías

[12] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. Uribildu eta hirietako aktak. Bizkaiko Batzar Nagusiak. 1572 eta 1579. urteak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y ciudad. Juntas Generales de Bizkaia. Años 1572 y 1579.

egindako produktu siderurgikoen urteera bizkorra kanpoko merkataritzarako.

y una rápida salida de los productos siderúrgicos elaborados hacia el comercio exterior.

Merkataritzearen goraldiak eta garraiobide lez burdiak gero eta gehiago erabili izanak errepideak zabaldu beharra be ekarri eban. Ikusi daigun zer esaten dan asunto horretaz Foru Zaharrean [13] :

El auge del comercio y la creciente utilización de la carreta como medio de transporte obligó a ensanchar los caminos. Veamos lo que dice al respecto el Fuero Viejo [13] :

:"... En cuanto a los caminos que hay en los puertos y de los puertos a las ferrerías, es menester que sean más anchos, para que cuando los carros fueren del puerto a las ferrerías y de las ferrerías a los puertos, puedan pasar los unos por una parte y los otros por la otra. Y ordenaban que los tales caminos (...) sean de ancho, cuatro brazadas y media".

Holan ba, zamalkabereak pasetako aukerea baino emoten ez eben lehengo bidezidorrak behar beste zabaldu ziran, hau da, burdiak erraz pasetako beste, eta bide ganeak lurrez bete ebezan. Kontu horretaz, 1597ko beste agiri hau be aurkitu dogu, esanguratsua benetan [14] :

De ese modo, las aniguas veredas que solo posibilitaban el tránsito de cabalgaduras se ampliaron lo necesario como para dejar paso a las carretas y se revistieron los caminos de tierra. Respecto a este asunto, hemos encontrado este documento del año 1597 que resulta muy significativo [14] :

"(...) está mandado que los fieles de anteiglesias, cada uno en su distrito, hagan y reparen los caminos necesarios. (...) Y en especial, en los caminos que hay desde la puebla de Zubiaur de Zornoza hasta la villa de Guernica. Y desde la casa Zubiaur, que es en el concejo de Ajanguiz, hasta la cruz de Zabalburu. Y desde el término de Tramaburu hasta la ermita de santa Lucía, que es en la anteiglesia de Luno. (...) y desde las casas de Barrutia hasta el puente de Barrutibaso. (...) Y el puente de sobre la presa y calce de Zubiaur (...).

Su señoría acordó y mandó que los fieles (...) los hagan y reparen, así de calzada como de lo demás que fuere necesario (...) de suerte que puedan pasar por ellos con carros y cabalgaduras, sin peligro ni deterioro alguno."

Era berean, harrizko zubi publikoak egin ziran, doanekoak, burdiak pasetako besteko zabaleradunak, batez be ordura arte errekea pasetako ibiak egozan lekuetan, ze zenbat eta burdi gehiago pasau orduan eta egoera txarragoan geratzen ziran pasabide hareek. Gure kasu honetan, errenteria barrirako zubi barria egin zan [15] :

Igualmente, se construyeron puentes de piedra públicos y gratuitos lo suficientemente anchos como para que pasaran los carros, allí donde antes era preciso cruzar vados, ya que las dificultades para atravesarlos aumentaban cuando lo hacían las carretas. En el caso que nos ocupa, se levantó un nuevo puente hacia la nueva rentería [15] :

"(...) Hace poco más o menos veinticuatro años (teniendo en cuenta que el presente escrito data del año 1565, se refiere al año 1541, aunque el autor de este trabajo cree que debe tratarse de una fecha anterior, toda vez que el puente nuevo aparece en un plano de Gernika fechado en 1535) el alcalde y el regimiento de la villa de Guernica (...) pusieron (...) puente público, placenteramente viéndolo y sabiéndolo los vecinos de Ajanguiz y de San Pedro de Luno."

Zubi publiko eta doaneko barri hareri esker, errenteriatik Gernika uribildura bitarteko merkatalgaien trafikoaren mesedetan egindakoa, itsasadarrean hegoalderago joanda hirurehun bat metrora, Ibinarriaga torretxearen ondoan (gaur egungo Ajangizeko Kasamene baserrian), ordura arte egondako ibinarri traketsa laster ahaztu egin eban jendeak.

Este nuevo puente público y gratuito, construido para facilitar el tráfico comercial entre la rentería y la villa de Gernika, hizo que se fuera olvidando el antiguo y tosco vado de piedra (en euskera, 'ibinarri') situado trescientos metros más al sur de la ría, en las inmediaciones de la torre de Ibinarriaga (actual caserío Kasamene de Ajangiz)

3.- ERRENTERIAKO PORTUA

3.- EL PUERTO DE RENTERIA

Gorago esan dogunez, Ajangizeko alderdiko lehenengo errenteria gaur egun Ama Mesedetakoen komentua eta eleizea dagozan lekuan

Tal y como señalábamos anteriormente, la primera rentería en la orilla de Ajangiz se instaló donde ahora se levantan el convento y la iglesia de

[13] Foru Zaharra, CCX. atala, 195-197. orr.

Fuero Viejo, capítulo CCX, pp 195-197.

[14] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. Uribildu eta hirietako aktak. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y ciudad. Juntas Generales de Bizkaia.

[15] Termino eta jurisdikzinoen gaineko beteazpena. 1772an egindako kopia, Lumo eleizateak eskatuta. Bizkaiko Eleizaren Historia Arkibua.

Ejecutoria sobre términos y jurisdicciones. Copia realizada en el año 1772 a petición de la anteiglesia de Lumo. Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia.

eregi eben. Aldamenean portu bat be egin zan, bertaraino merkatalgaiakaz etorten ziran ontzietara sartzeko arlanpa eta guzti, eta burdinea ontzietatik atera eta bertan pilatzeko zabalune ederragaz.

las Madres Mercedarias. A su lado se levantó un puerto compuesto por unas rampas de acceso a las embarcaciones que hasta allí llegaban con el género comercial, y una explanada donde se descargaba y amontonaba el mineral de hierro.

Lapurretak, tranpak eta iruzurrak

Elena Legorburuk dinoan lez [16], Gernikako itsasadarrera heltzen zan burdinearen mobimentua bertako herritarren esku egoan; eurak ziran barrualdeko olagizonen eta Bermeoraino etozan itsasontzietako kapitanen arteko bitartekari lana egiten ebenak. Merkatalgaiak portutik Ajangizeko errenteria etxerainoko bidea egin behar eban.

Dana dala, batzuetan atrakuak, tranpak eta iruzurrak egoten ziran. Adibidez, urruneko burdinoletako burdilariak, inoiz, itsasontziaren bidera urten eta errekearen meandroren baten edo asaltorako beste leku egokiren batetik ontzia geldituazo egiten eben, barrukoei burdinea erreka ertzean bertan ixteko aginduaz. Agintariek holako lapurrak atrapetan ebezanean, errenterietatik urrunen egozan burdinoletara minerala eroateko premineari botaten eutsien errua gehienetan. Ez eben aitortzen lapurretearen benetako arrazoia, normala zanez: burdinea ontzitik atera eta batera Ajangizeko errenteriari ordaindu beharko eutsien dirutzea aurreztu nahi izaten eben.

Burdineagaz askotan egiten zan beste tranpa bat zan uraz bustitzea –bustidurea–; holan, burdineak gehiago pisetan eban, eta burdinolek gehiago ordaindu behar eben burdineagaitik. Agiri honetan [17], esate baterako, beitu zer esaten dan:

Atracos, trampas y fraudes

Tal y como señala Elena Legorburu [16], el movimiento de mineral de hierro por la ría de Gernika era cubierto por los lugareños, quienes también ejercían de intermediarios entre los ferrones del interior y los capitanes de los bajeles que transitaban por la costa hasta Bermeo. Todo este género comercial debía confluir en el puerto y en la casa rentería de Ajangiz.

Sin embargo, en ocasiones se producían atracos, trampas y fraudes. Como cuando los carreteros de ferrerías lejanas salían al paso del barco, detenían la embarcación en un meandro o en algún otro trecho de la ría que se prestara al asalto, y obligaban a descargar el mineral en la misma orilla. Cuando las autoridades detenían a estos atracadores, éstos intentaban defenderse aludiendo a la apremiante necesidad de llevar el mineral de hierro a las ferrerías más lejanas de la rentería. Por supuesto que no se les ocurría citar la principal razón para cometer el delito: eludir los impuestos que debían pagar en la rentería de Ajangiz en el momento de la descarga.

Otra de las trampas más comunes que se cometían con el mineral de hierro, consistía en empaparlo en agua –la mojadura–, de modo que pesara más, con lo que las ferrerías debían pagar más por el mineral. Así en este documento [17] se dice que:

"en los puertos de la rentería de Ajanguiz los bajeleros que traen hasta aquí las dichas venas solían dar a los compradores por cada quintal cinco libras de mojadura, y pesa más que antes la dicha vena, mediante su calidad de ser húmeda."

Beste iruzur nahiko arrunt bat be aitatuko dogu hemen: burdinea ohostu eta gero birsalmentara eroatea. Beste agiri honetan jasota geratu zanez [18], Ajangizeko portua eta errenteria burdinaz horniduten ebezan burdinoletako jabe eta hornitzaileek kexa handiak eukezan:

Un último fraude relativamente usual consistía en el hurto y la reventa del mineral de hierro, tal y como se señala en este otro documento [18], donde los dueños y proveedores de las ferrerías a las que surtían de mineral desde el puerto y la rentería de Ajangiz, se quejan amargamente:

"(...) En el puerto y rentería de Ajanguiz, donde se descargan las venas para el abastecimiento y provisión de las dichas ferrerías, algunas personas, no siendo abastecedoras de ferrerías, para tornarlo y revenderlo en Orobio y en otras partes, compraban hasta diez quintales de vena. Y (...) se lo llevaban a los dichos abastecedores de sus pillas y montones sin su sabiduría (...). Y si no se evitasen (...)las dichas compras y reventas en el dicho puerto, harían grandísimo daño. Y pidieron (...) que les puedan pedir cuenta y razón a las tales personas sobre a donde llevan las dichas venas y quién se las ha dado, para poderles retener hasta que den la dicha cuenta (...)."

[16] LEGORBURU, E.- "La labranza del hierro en el País Vasco" Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2000. urtea

LEGORBURU, E.- "La labranza del hierro en el País Vasco" Bilbao. Universidad de País Vasco. Año 2.000

[17] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1575. urtea. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1575. Juntas Generales de Bizkaia.

[18] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1575. urtea. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1575. Juntas Generales de Bizkaia.

Polizien beharrizana portuan eta errenterian

Gure arbaso hareek ekonomia aldetik garai ezin oparoagoa eta zoriontsua bizi izan eben, burdineari eta haren deribatuei esker gehienbat. Horregaitik, ezin eben onartu burdinearen salerosketarako gune neuralgikoan, Ajangizeko portuaren eta errenteria etxearen konplejuan lehen aitatutako moduko engainuak, iruzurrak eta lapurretak gertatzerik.

Hori zala eta, jaurerriaren beraren ekintzapidea izan zan burdina zaintzailearen figurea sortzea. Benetako poliziak ziran eta –delituei aurrea hartu eta holako arau-hausteak zapaltzeko ardureaz gainera– portutik eta errenteriatik urten edo euretara sartzen zan burdinea kontroletako ardurea hartzea be eskatu jaken. Hurrengo agiri honetantxe zehazten da zaintzaile horreen egiteko administratiboa:

Necesidad de policías en el puerto y en la rentería

Nuestros antepasados estaban asistiendo a una época económicamente expansiva y feliz gracias, fundamentalmente, al hierro y a sus derivados. Por ello, no iban a permitir que el centro neurálgico de la compra -venta del mineral de hierro, el complejo del puerto y de la rentería de Ajangiz, se viera sacudido por casos de estafas, fraudes o asaltos, como los anteriormente comentados.

Por ello, el propio señorío incentivó la figura de los guardas del mineral de hierro, verdaderos policías a los que –además de su función preventiva y represora del delito –se les pedía que controlaran el hierro que entraba y salía por el puerto y la rentería. En el siguiente documento se remarca su función administrativa:

"(...), se debían poner personas en los puertos de este señorío y en la dicha provincia donde se hace la dicha descarga, que tengan cargo particular para dar testimonio y registro de la dicha descarga (...). Para señalar más adelante que "(...), en la rentería de Ajanguis, (...) sea en ello comisario, Iñigo Ruiz de Albiz, regidor del dicho señorío". [19]

Beste agiri batzuetatik dakigu Ajangizeko errenterian eta portuan nortzuk izan ziran salmentazaintzaileak XVI. mendearen amaieran. 1585ean, jaurerriak barriro be Iñigo Ruiz de Albiz izentau eban ardura horretarako. Eta 1593an, Iñigo Ruiz de Albiz eta Pero Saez de Ybinarriaga. Bide batez, begiratu hurrengo urtean, Jaurerriko erregimentuak Pero Saez de Ybinarriaga horrentzat zer agindu eban:

Por otros documentos sabemos quiénes fueron los guardas de venas en la rentería y en el puerto de Ajangiz a finales de este siglo XVI. Así, en el año1585, el señorío volvió a nombrar a Iñigo Ruiz de Albiz. Y en el año 1593, a Iñigo Ruiz de Albiz y a Pero Saez de Ybinarriaga. Por cierto, al año siguiente, el Regimiento del Señorío solicitaba para el tal Pero Saez de Ybinarriaga:

"(...) que se le pague por el trabajo que ha tenido... en la cuenta y cuidado de las dichas venas..., y que en adelante no se ocupe en la dicha rentería, porque no es cosa que de ello resulte utilidad ni provecho al señorío." [20]

Ajangizeko errenteriaren eta portuaren jabetzea

Aurreko dokumentuko azken lerroaldea kontu handiz aztertzea merezi dau, Ajangizeko portuan eta errenterian burdinea zaintzeko ardurea eukanaren zereginari buruz dinoana batez be:

Propiedad de la rentería y del puerto de Ajangiz

Conviene analizar el último párrafo del documento anterior, cuando se refiere al cargo de guarda de vena en el puerto y rentería de Ajangiz:

"(...) que en adelante no se ocupe en la dicha rentería, porque no es cosa que de ello resulte utilidad ni provecho al señorío". [21]

Ajangizeko kontsejuak portua eta errenteria etxea eregi ziran ibarraren gaineko jurisdikzinoa, itsasadarraren eskumako errekondoarena, Gernikari kentzea lortu eben. Urdaibaitarren kontra be auzitan sartu beharra egon zan, dokumentu honetan argi agertzen danez [22]:

El concejo de Ajangiz había logrado que Gernika perdiese la jurisdicción sobre la vega en que se había levantado el puerto y la casa rentería, en la orilla derecha de la ría. También hubo de litigar contra los Urdaibai, tal y como aparece reflejado en el siguiente documento [22] :

[19] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1575. urtea. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1575. Juntas Generales de Bizkaia

[20] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1594. urtea.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1594. Juntas Generales de Bizkaia.

[21] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1594. urtea.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1594. Juntas Generales de Bizkaia.

[22] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1594. urtea.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1594. Juntas Generales de Bizkaia.

"(...) Andrés de Arexti, vecino del concejo de Ajanguiz, dijo que en un pleito que él ha tratado con don Antonio de Urdaibay, el dicho señor corregidor ha adjudicado el descargadero de vena y otras cosas del puerto del concejo de Ajanguiz al dicho don Antonio. Y que daba noticia a su señoría respecto de ser suyo aquél, para que defendiese su hacienda y propiedad, y no consintiese (que) se le usurpase. Y su señoría mandó que los dichos síndicos vean el dicho descargadero y se informen del derecho que a ello tiene este dicho señorío."

Sindikoak ahalegindu bai ahalegindu ziran, baina ezin izan eutsien –momentuz– ainguralekuaren kontrola Urdaibaitarrei kendu.

Por mucho que miraron los síndicos, no pudieron quitar –de momento– el control del tal fondeadero a los Urdaibai.

4.- ERRENTERIAKO AZOKEA ETA PLAZEA

On Tellok, Gernikaren uri-gutunean, Busturialdeko eleizate guztietan galazo eban azokak eta plazak eratzea, Gernikan bertan izan ezik. Gernikan baino ezin izango zan nekazaritza eta abere azokaren bat antolatu. Monopolio horren arrazoia zera zan, holan On Tellok uribildu barriarentzat bermatuko ebazala merkatalgaiak saldu edo erostearren kobrau beharreko zerga guztiak, Busturialdeko beste eleizateen kaltetan.

Halandabe, Gernikan onartu ezindako beste gehiegikeria batzuk be egiten ziran. Janariak, adibidez, uribilduan bertan gorde behar ziran gero saldu edo erosteko. Baina gernikarrak eurak ziran beste inor baino lehen janari hareekaz horniduten ziranak, behar eben guztia erosi arte. Hareen ondorik baino ezin eben inguruko eleizateetako herritarrek erosi. Beraz, gernikarrek itxitako hondakinak baino ez jakezan geratzen, eta hori –aldikada ekonomiko txarretan edo janari eskasia egoanean– beste eleizate horreen kontrako bidebakokeria galanta zan.

Hori ikusita, zelan ez, kontseju kaltedunek auzitara eroan ebezan gehiegikeria horreek guztiak. Ajangizeri jagokonez, aldeko erabagia izan zan gainera, ze 1598an[23] autojudizial batek Gernika uribilduari kendu egin eutsan merkataritzarako monopolio ha:

4.- LA FERIA Y EL MERCADO DE RENTERIA

Don Tello en la carta fundacional de la villa de Gernika, prohibió organizar ferias y mercados a todas las anteiglesias de Busturialdea, en favor de Gernika. Solamente ella tendría un mercado semanal, y solamente ella podría organizar ferias agrícolas y ganaderas. La razón de este monopolio residía en que Don Tello garantizaba así a la nueva villa el cobro de todos los impuestos relativos a la compra y venta del género comercial, en detrimento de las demás anteiglesias de Busturialdea.

Además, Gernika cometía otros abusos intolerables. Por ejemplo, los alimentos debían almacenarse para su compra y venta en el interior de la villa. Pero eran los guerniqueses quienes en primer lugar se surtían, hasta que compraban todo lo que necesitaban. Solo después podían comenzar a comprar el resto de los vecinos de las otras anteiglesias el género comercial que les había sobrado a los guerniqueses, lo que –en épocas de penuria económica o de escasez de alimentos– constituía una gravísima afrenta hacia las anteiglesias.

Por supuesto, los concejos afectados litigaron contra estos abusos. En el caso de Ajangiz, con resultados favorables en el año 1598[23] cuando un auto judicial despojó a la villa de Gernika de ese monopolio comercial:

"Así bien, los dichos síndicos propusieron que siendo como son todos los mercados libres para comprar y vender todos los que a ellos acudieren libremente, sin estanco ni estorbo alguno, el alcalde ordinario de la villa de Guernica (...) hacía y mandaba hacer estanco en los dichos mercados de los vastimientos de pan, vino y otras cosas que a la dicha villa y a su mercado acudían. De tal manera que no les dejaba comprar ni llevar del dicho mercado los dichos vastimientos hasta tanto que todos los vecinos e moradores de la dicha villa se proveyesen de todo lo que les convenía para sus casas.

[23] Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1594. urtea.

Juntas y regimientos de Bizkaia. Año 1594. Juntas Generales de Bizkaia.

Maloste (Lugar de Ferias y Mercados)

Agiri horretan bertan, Gernikatik kanpo beste plaza biren sorrera onartu zan: bata Lumoko auzo baten, Saraspen, eta bigarrena, guri hemen interesetan jakuna, Ajangizeko auzo zan Errenterian, portu inguruan hain zuzen:

En el mismo documento se aprueba la creación de dos nuevos mercados fuera de Gernika: Uno de ellos en el barrio de Lumo llamado Saraspe. El segundo, el que ahora nos interesa, en el barrio de la Rentería, en Ajangiz, concretamente en la zona portuaria:

: (...) y el dicho regimiento ordenó que el dicho mercado de vastimientos se haga por la comodidad que para ello hay para los del infanzonazgo en los puertos de la Rentería, que están cerca de la dicha villa, y en la venta de Saraspe, ambos en el dicho infanzonazgo".

5.- ERRENTERIAKO ERMITA BIEN JATORRIAK

Ajangizeko errekondoan errenteria etxe barria eta portu barria altzau ziranerako, alderdi haretan ermita bi egozan: Andra Mari Madalena eta San Bartolome ermitak.

Ermita bi horreek, 1576ra arte behintzat –zelan edo halan– Gernika uribilduaren babespean egon ziran, Gernika uribilduak mugako ibarren eta paduren jabetzea zala-eta Ajangizen kontra hasitako auzitik ateratako lerroalde honi begiratu ezkero:

5.- ORÍGENES DE LAS DOS ERMITAS DE LA RENTERIA

Para cuando se levantó la nueva casa de la rentería y el nuevo puerto en la orilla de Ajangiz, aquella zona disponía de dos ermitas: La de Santa María Magdalena y la de San Bartolomé.

Estas dos ermitas, al menos hasta el año 1576 habrían estado –de algún modo– bajo la tutela de la villa de Gernika, si atendemos al siguiente párrafo extractado del litigio que mantenía la villa de Gernika contra Ajangiz por la propiedad de las ibarras o marismas limítrofes:

"(...)Y el alcalde y regimiento de la dicha villa, y el preboste y los jurados de ella, con los vecinos de ella en cada un año, una o dos veces (...) a las ermitas de la Magdalena y San Bartolomé, que está entre Ibinarriaga y Vizcarra, pasando por el rabal de la rentería, viéndolo los vecinos de ella y no contradiciéndolo".

San Bartolome ermitea portutik eta errenteria etxetik urrunago egoan, Bizkarra eta Ibinabarriaga baserrien erdian.

La ermita de San Bartolomé estaba la más alejada del puerto y de la casa rentería, ya que estaba situada entre los caseríos de Bizkarra y de Ibinarriaga.



Crucero (La Magdalena)

Andra Mari Madalena ermitea, ostera, Errenteriako kurutzearen ondoan egoan. Ermita hau, zeregin erlijiosoetarako ezezik Ajangizeko ledaniako auzo-batzarrak egiteko be erabilten zan. Aterpe eta guztiko atrioa, harrizko mahaia eta banko luzeak eukiko ebazan, auzotarrek erosoago eztabaidatu eiezan euren arazoak.

6.- URRENGOERROTEAREN JATORRIA

Gaur egun ez dago errota hau, baina Urrengoerrota kalea dagoan tokian existidu zan.

Agirietara begiratuta[24], 1592tik harrezkero daukagu errota horren barri, Urrengo izeneko errotearen zortzirena saltzeko kontuak jasoten dituan agiritik. Geroagoko beste dokumentu batzuetan Errenteria edo Madalerengo errota lez be aitatzen da, ze Madalena ermitearen ondoan egoan.

Geroago, 1600ean, arotzeriako maisu bi Juan Ortiz de Ybinarriaga ajangiztarrak Urrengo errotarako egin eta eregitako presa barria aztertzera joan izanaren barri jasoten dauan dokumentu baten aitatzen da barriro[25]:

La ermita de Santa María Magdalena estuvo emplazada en torno a la cruz de la Rentería. Esta ermita, además de su función religiosa, se utilizaba para celebrar las reuniones de los vecinos de la ledanía de Ajangiz, para lo que contaría con un atrio cubierto, mesa de piedra y bancos corridos para que los vecinos deliberaran con mayor comodidad.

6.- ORÍGENES DE URRENGO

En la actualidad este molino ha desaparecido, pero se hallaba ubicado en lo que hoy es la calle Urrengoerrota.

Documentalmente[24], tenemos noticias de él desde el año 1592, cuando se habla de una venta de la octava parte del molino de Urrengo. En documentos posteriores se le denominará también molino de la Rentería o Madallerengo errotea –molino de la Magdalena–, ya que se localizaba junto a la ermita de La Magdalena.

Posteriormente, en el año 1600 se le cita nuevamente, cuando dos maestros carpinteros acuden a evaluar la nueva presa que el vecino de Ajangiz, Juan Ortiz de Ybinarriaga, había hecho y edificado para el molino de Urrengo[25]:

[24] ITURRIARTE, A.- Ajangiz, 1592. María Ortiz de Arteagaren aldeko zentsua. Trascripción de los manuscritos del archivo del convento de La Merced. Argitalpen mugatua. Gernika-Lumo, 2000. urtea.

ITURRIARTE, A.- Ajangiz, 1592. Censo a favor de María Ortiz de Arteaga. Trascripción de los manuscritos del archivo del convento de La Merced. Edición limitada. Gernika-Lumo, año 2000.

[25] BFA. Protokolo notarialen ondarea. Martín de Aurrecoechea eskribaua. 023 signaturea. Gernika 1600.

A.F.B. Fondo de protocolos notariales. Escribano Martín de Aurrecoechea. Signatura 023. Gernika 1600.

"Averiguación de una obra y apreciamiento:

En el campo y robledal de junto a la ermita de La Magdalena del concejo de Ajanguiz, en este Señorío de Bizkaia, a veinticuatro días del mes de julio del año mil y seiscientos.

Por testimonio de mí, Martín de Aurrecoechea, escribano público de su majestad en esta merindad de Busturia, parecieron presentes: De la una parte, Diego De Mascarua, vecino que dijo ser de la anteiglesia de San Martín de Arrieta. Y de la otra Simón de Landa, vecino que dijo ser de la anteiglesia de Murueta, los dos maestros carpinteros.

Y dijeron que este día habían venido a apreciar una presa nueva que Juan Ortiz de Ybinarriaga (vecino del dicho concejo) había hecho y edificado en el río Jagoa, que viene a su molino que está junto al dicho puerto, que llaman Urraengoerrota, que era de cinco parzoneros como eran doña Magdalena de Belendiz y Urtiz de Zubiaur, de doña María López de Olaeta y de Rentería y su marido, de (...) Martínez Carra, de (....) Calvidea, y de doña María Martínez de Barraondo.

Y que según tenían entendido, a pedimiento de los dichos parzoneros, el dicho Juan Ortiz de Ybinarriaga había hecho las dichas obras. (....) Y Diego de Mascarua, como tal oficial apreciador de las dichas obras (...) y Simón de Landa (...), dijeron que habían visto las dichas obras y presa que había hecho para el dicho molino, juzgando cada cosa, por si todo lo que está hecho es conforme a sus pareceres (...) Y dijeron que la presa nueva valía y montaba 2.900 reales (...)"

Derribo de Urrengoerrota